


DONOSTIA

2016KO EUROPAKO KULTUR HIRIBURU IZATEKO HAUTAGAIA

ESKAERA GALDE-SORTA

# herritarren energia-olatuak —

*elkarbizitzarako  
kultura —*



# DONOSTIA

2016KO EUROPAKO KULTUR HIRIBURU IZATEKO HAUTAGAIA

## GALDE-SORTA

I — OINARRIAK ETA ARDATZA	5
II — ADIERAZPENAREN PROGRAMAREN EGITURA	27
III — GERTAKIZUNAREN ANTOLAKETA ETA FINANTZAKETA	33
IV — HIRI-AZPIEGITURAK	41
V — KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIA	46
VI — GERTAKIZUNAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	49
VII — OSAGARRIAK	51





# OINARRIAK ETA ARDATZA

## 1.A ORDEZKATZEN DUZUN HIRIAK, ZERGATIK PARTE HARTU NAHI DU EUROPAKO KULTUR HIRIBURU IZATEKO IZENDAPENEAN?

Donostia bizi-eremu bihurtu nahi dugulako, baita Hautagaitza honek ordezkatzeko duen lurraldea ere, kulturaren eta hezkuntzaren eskutik bizi-proiektuak askatasunez garatzeko.

Gure hiria bizitzari, giza eskubideei, integrazio sozial eta politikoari, giza legeari eta elkarbizitzari zor zaien begirunea erakusten dakien hiria da, eta hiriak berak baldintza horiek guztiak gizarteratuko ditu, izatez eta egitez.

→ Etikaren eta hiritartasunaren birsorkuntzan sakonduz, estereotipoak eta alde bakarreko perfilak gaituz, balioen eta hezkuntzaren aldeko kultura bultzatuz, eta herritarren energia sustatuz.

Europako izaera modu naturalean adierazten jakingo duen lurralde batean bizi nahi dugulako, eta horrek gure kultur politika aberastu dezala hain zuzen.

→ Sare bitarteko lana eta mugaz harandikoko lankidetzak bultzatuz, Euskadiko eta nazioarteko eurohiriaren bitartez, gizartearen berrikuntza eta eraldaketarako eragile gisa sorkuntza erabiliz, gure kultur biziera berriz piztuz, gure kultur ekintzak eta ekipamenduak berriz zehaztuz eta berriz asmatuz, kultur proiektu estrategikoak burutu ahal izateko guztia bizkortuz.

Gure esperientziaren eta elkarren artean ikasitakoaren bitartez, elkarbizitzaren Europan lagundu nahi dugulako.

→ Elkartrukea eta elkarlana sustatuz. Europarekin erronkak, arazoak, aukerak eta konponbideak partekatuz.

Ezinezkoari berari ilusioz, adorez eta tinko aurre egiteko gauza izango diren gizon-emakumeen Europa amestu nahi dugulako, eta amets hori egi bihurtu.

Eta ez bihar. Orain.

## 1.B ZEIN DA HAUTAGAITZAREN ERRONKA NAGUSIA?

Hautagaitzak talde lanaren erronka dakar gure berreraikuntza morala bultzatzeko. Horrela, Donostiaren eta Euskadiren irudia komunikabideek ekintza terroristen gainean azaltzen dituzten estereotipo horien oso bestelakoa dela erakutsi nahi diogu Europari. Erronka da, baina aukera ere bai. Euskal herritarrek bake-kulturaren eta giza eskubideen aldeko apustu sendo eta garbia nola egiten duten erakutsiko dugulako, gatazken indarkeriazko adierazpenei amaiera emateko, elkarbizitzarako tresna ezinbesteko gisara kultura eta hezkuntza biak egiatan babestuz.

Gainera, gure dimentsio europarra indartzera behartuko gaituen erronka da hori, lurraldearen kultur bizitza berpiztuz, sorkuntzaren alde eginez eta kode zabal eta jabego publikoko kulturak hausnartuz. **HERRITARREN ENERGIAREN** iturburutik, **PERTSONAK** modu eragile eta erantzukide batean partaide bihurtzeko azkenean.

Beraz, gure erronka nagusia hiriaren berreraiketa soziala eta kulturala da, Donostiak 1813. urtean bizi izan zuenaren oso antzekoa, orduko hartan ere aurre egin baitzion mugarteko gerren ondorioz eratorri zitzaion hondamendiari.

## 1.C ZEIN DIRA HIRIAK URTE SEINALATURAKO DITUEN HELBURUAK?

Aurkezten ditugun proiektu zehatzek azpimarratzen dituzten helburuez gain, badira izaera orokorragoa eta zeharkakoa duten beste batzuk, eta horien artean aipagarrienak hauek lirateke:

- Taldeko erronka bat proposatu, kohesio soziala eragingo duena, eta indarkeria eta terrorismoak utzitako estigma gainditzeko bidean lagundu dezala, herritarren arteko elkartasuna sendotuz, eta, aldi berean, Europako hirien arteko elkarbizitza hobetuz.
- Bizi-energia balioetsi eta kaleratu, sortzeko gaitasuna, lantzaileen ekimenak eta **PERTSONEN** izpiritu (auto)kritikoa ere bai, gizartea eta kultura eraldatzeko prozesua burutzeko eta Europako hazkunderan laguntzeko.
- Europazalea den gure borondatea areagotu, Europarantz zabaltzeko gure premiazko beharraz ohartu erronkak eta arazoak partekatuz, konponbideak elkarrekin bilatzeko, esperientziak eta talde-lana elkarrekin trukatzuz.
- Gure hirian, bere lurraldean eta, ondorioz, Europan, kode zabaleko kultura bultzatu, jabego publikoaren kultura, ikaskuntza eta jakintza partekatuaren fruitua izango dena.
- Kultur programazioa gizartearen eta erakundearen egituraren uztartzea, eta hori modu naturalean lortzea, baterako agenda eratuz horretarako, erregionala eta mugaz haraindikoa, testuinguruaren konexioa Europako eta nazioarteko sarean bitartez sustatuz.
- Ikerkuntza, sorkuntza eta trebakuntza bereizgarrian lagundu, kulturaren eta ekonomia sortzailearen eremu ezberdinetan askotuz eta nolakotuz.

## 2. HIRIA EUROPAKO KULTUR HIRIBURU IZENDATUKO BALUTE, AZALDU ZEINTZUK IZANGO LIRATEKEEN KULTUR PROGRAMAREN ARDATZ NAGUSIAK. AZALDU KULTUR PROGRAMAREN FUNTSA ZEIN DEN.

Gure kultur programaren proposamenak **PERTSONEN** gaitasun sortzailea eta hari lotutako kultura hartzen ditu oinarri. Haien indar sortzailea da zutabe, eta haiek elkarbizitzarako eremuak pizteko duten gaitasuna, askatasunez eta autonomiaz, elkarrizketari leku emanez: guztion lekuak dira horiek, guztiontzat, bertan gure askotariko nortasunak, gure balioak eta bizitzarako helburuak elkarrekin bizi eta berriro modu etengabea zehaztu daitezten; kultur aniztasuna bultzatuko da hor edota desadostasun politiko eta erlijiosoak, guztion partaidetza eta berdintasunaren mesedetan.

Europako Kultur Hiriburuaren izendapenak (EKH) aukera ederra emango liguke, batetik, eraldakuntza oinarri duen kultur proiektua burutzeko eta, bestetik, kultura ulertzeko eta egiteko moduak eraldatu orduko, gizakiaren, gizartearen, ekonomiaren eta lurraldearen garapenean laguntzeko. herritarren kulturaren aldeko apustua da hau, haiena baita mundua bizi eta eraldatzeko gaitasuna.

Demokrazia bere osotasunean ulertzeko modua da hemen kultura. Tresna da kultura, gizartearentzat berritzailea izango den ikuspuntu batetik energiak eragiteko, ahalmen sortzaileak sustatzeko. Kultura eta hezkuntzarako den bere zeregina. Bidea eta helmuga, biak garrantzitsuak diren prozesua.

Gure proiektuak kultur ekimenak duen eragin soziala berreskuratzea du jomuga.

## 3. BA AL DUGU PROGRAMA HORI LEMA BATEKIN LABURTZERIK?

*Herritarren energia-olatuak—Elkarbizitzarako kultura*

Herritarren arteko elkartasuna eta Europan elkarbizitza hobetu nahi ditugu, sendotu, horregatik da gure proiektua askoren arteko lanaren emaitza. Lankidetzaren ondorio da, prozesua irekia eta ikertzailea izan baita, **PERTSONA** askoren partaidetzari esker sortua. Haiek eman digutenaren -ideiak, ezagutzak, esperientziak- eta oraindik ere ematen ari direnaren lorpena



da. Batuketa horretan, balioen eta proposamenen batuketa horrek osatzen ditu *Herritarren energia-olatuak*, eta gure Ozeano Atlantikoaren indarraren, irmotasunaren, adorea eta bihotz zabaltasunaren adierazle izan ez ezik, izenburua, kolorea eta zentzua ere ematen dizkio gure proiektuari.

*Herritarren energia-olatuak* gizon eta emakumeek duten zereginaren aldeko apustua esan nahi du, bai bakarka bai taldean dugun betebeharraren aldeko apustua, herritarren konpromisoaren eta ondare sozialaren ondorioen aldekoa, elkarrekin bakean bizitz bere etorkizuna bakean eraikiko duen gizartearen joskeraren aldeko apustua.

#### 4. HIRIKO ZEIN EREMU HARTUKO LITUZKE «EUROPAKO KULTUR HIRIBURUAREN» GERTAKIZUNAK? ZERGATIK? NOR GUREGANATUKO DUGU?

Hiria da partaide bere osotasunean, erdigunetik periferiaraino, eta auzoek garrantzi berezia izango dute, baita baliabide eta eragile sozial, kultural eta ekonomikoek ere. Proiektua Gipuzkoako probintzia guztian barna hedatzen da, mugaz haraindiko eskualdera era bai, Donostia-Biarritz-Baiona kulturaren eurohiria osatzen den horretara, Bordele eta Bilbo arteko pasabide euroatlantikoan hartzen duten eremu estrategikoan.

Gure Hautagaitzak hiri-proiektu bat proposatzen du, euskal eurohiriaren testuinguruan. Elkarrekin partekatzen baititugu honako hauek:

- Baterako iragana eta ingurune geografikoa, lengoia, historia, tradizio liberala eta elkarrekiko kultura.
- Baterako oraina, ekonomia, mugikortasuna, aisialdia (kirola, kultura), zerbitzuak, ekimenak, sentimenduak.
- Baterako etorkizuna, benetako biziera europarra garatuko duten proiektuak, eta gerora ere hiri-egiturak, egitura administratiboak eta aginte-egiturak, merkataritza-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak eragiten lagunduko digutenak, gure eguneroko bizitza hankaz gora jarri ez dadin muga bat zeharkatu orduko.

Beraz, adierazpen honetako ekimen edota azpi-proiektu bakoitza tokian tokiko, eskualdeko eta euro-herrialdeko bere eremurik naturalenean burutuko da. Denen historia idatzi behar baitugu, eta denok batera aukerak bilatu. Denok batera esateko duguna gehiago baita, eta handiagoa Europako borondatean benetan errotuko den zerbait egiteko gure aukera: muga politikorik gabe bizi ahal izatea, muga linguistiko, sozial eta psikologikorik gabe. Kultur adierazpen honen atzerpean, eurohiri gisa ditugun gure harremanak indartzen baditugu, Europa indartzen lagunduko dugu.

## 5. LORTU AL DUZU DAGOENeko TOKIKO EDO ESKUALDEKO AGINTARI POLITIKOEN BABESA?

Erakundeen babesa funtsezko aldagaia izan da proiektuarentzat, gure ibilbidearen hasieratik. Azkar egin ditugu akordioak, ia berehala; maila guztiak inplikatu dira, eta gure lurraldeko aukera politiko guztien onespena jaso dute.

Proiektua Donostiako Udalaren ekimenez sortu da. Berak zuzentzen du, Udalbatzaren adostasunarekin, eta berehala atxiki zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundia (lurralde historikoko gobernu-organoa) eta Eusko Jaurlaritza (gobernu autonomikoa). Hiru erakundeek finantzaketa, partaidetza eta erabakiak partekatzen dituzte, Hautagaitza zuzentzen duen Erakunde Arteko Batzordean.

Lankidetzeta horrek izugarritzko balioa du, zatiketa politikoa eta akordioak egiteko zailtasunak bereizgarri dituen errealitate batean.

Era berean, Hautagaitzak beste erakunde batzuen berariazko babesa du; adibidez, Gipuzkoako Batzar Nagusia (Gipuzkoako Legebiltzarra), Eusko Legebiltzarreko Bozeramaileen Batzordearena eta Eudelena (Euskadiko Udalen Elkarteak).

Hainbat udal-erakunde publikok babes eta gizarte-konpromiso handia erakutsi diote Donostiari; esaterako, Euskal Autonomia-Erkidegoko beste bi hiriburuek, Bilbok eta Gasteizek, eta Euroeskualde Atlantikoan, berriz, Biarritzek, Baionak eta Bordelek. Aipatu hiriek aktiboki lagunduko diote Donostiari, beren proiektu, azpiegitura eta kultura-baliabideak adierazpenaren eskura jarritz.

Gure proiektuak, **DSS2016EU**-k, unibertsitate-erakundeen babesaren ere jaso du, eta baita gure lurraldeko hedabide publiko zein pribatuen arloko erakundeena ere.

## 6. NOLA KOKATZEN DA ADIERAZPENA HIRIAREN ETA, HALA BADAGOKIO, ESKUALDEAREN EPE LUZERAKO GARAPEN KULTURALEAN?

Gaur egun, gure lurraldeari buruzko formulazio estrategikoen dagoeneko sartzen, sustatzen eta defendatzen dute kulturaren balioa, funtsezko tresna baita lurralde-garapena bultzatzeko. Eragile ekonomiko, sozial eta instituzional garrantzitsuenek ordezkariak eta partaidetza dute formulazio horietan, eta beraz, kultura eragile horien guztien agendetan dago.

Toki-mailan, Donostiako Plan Estrategikoak, bere helburu nagusien artean, kultura, gizarte-berrikuntza eta ekonomia sortzailearen arloetan Europan erreferentzia den lurralde sortzaile bat eraikitzea aurreikusten du; lurralde hezitzaile eta integratzaile bat eraikitzea, eta ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako garapen iraunkorreko eredu bat.

Era berean, Hautagaitza-proiektuan landutako helburuak bat datoz Gipuzkoa+20ren esparru orokorrarekin —Gipuzkoako Foru Aldundiaren bulego estrategiko horrek 2030 urtea finkatu du horizonte gisa—; edo Baiona-Donostia Euskal Eurohiria Garatzeko Mugaz Gaiak Agentziaren Lan Planaren helburuekin (Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Baiona-Angelu-Biarritz Hirialdeko Komunitateak sortu dute lankidetzaren egitura hori).

Erakundearen artean lortutako adostasun zabalari esker, besteak beste, **DSS2016EU** proiektua erakunde horien plan estrategikoen koordinatze eta inbrikatu daiteke, eta gainera, plan horien arteko lotura bultzatzen da.

Adierazpenak, beraz, erreferentzia izan behar du iturri estrategikoetatik edaten du; eta aldi berean, hiriak eta euskal eurohiriak epe luzean lortu nahi duten garapen kulturala errealitate bihurtzeko oinarritzko tresnetako bat da.

## 7. ZEIN NEURRITAN AURREIKUSI DUZU HARREMANETAN JARTZEA EUROPAKO KULTUR HIRIBURU IZENDATUKO DUTEN BESTE HIRI EUROPARRAREKIN?

Donostia dagoeneko hasi da harremanetan EKH izenda ditzaketen Poloniako hiri batzuekin. Gure Zubiak 2016 programa xede horretarako sortu da berariaz. 2009ko udan, programa horren bidez, kultura-trukeak egin genituen Nazioarteko Jazz Jaialdiaren esparruan, eta Klezmer Klezmafour eta Lubliner Klezmorim taldeak izan genituen Donostian. Gainera, Zespół Tańca Ludowego HARNAM (Lodz) talde tradizionalak Lauarin Folklore Jaialdian hartu zuen parte. Horrez gain, 2009ko dFeria antzerki-jaialdira Poloniako zenbait antzerki-konpainia etorri ziren, —Centrum Kultury w Lublinie, eta Gdansk-eko Klub Zak—, eta hiri horietako arte eszenikoen jaialdi nagusietako zuzendariak ere izan ziren. Gdansk-eko Dantza Jaialdiaren eta dFeriaren arteko kultura-harremanaren erakusgarri, urte bereko abuztuan, Euskadiko eta Poloniako sortzaileak lankidetzan aritu ziren antzezlan bat egiteko.

Gainera, hezkuntzaren arloan ere badago ikasle-trukerako programa bat. Donostiako bigarren hezkuntzako ikastetxeek eta Gdansk eta Lublin hiri poloniarrek hartzen dute parte, eta helburua da ikasleek, hainbat kultura-jarduera eginez, Europako hiri horiek hobeto ezagut ditzatela. Nabarmendu behar da, baita ere, Poloniako musikariek Euskadiko Orkestra Sinfonikoan parte hartu dutela (bere egoitza Donostian dago).

Bide berriak ireki nahi ditugu, eta Poloniako hiriekin lan egin nahi dugu zenbait gai komunen inguruan. Adibidez, egoera totalitarioetan edo askatasunik gabekoetan bizirik irauteko tresna gisa kulturak izan dezakeen eginkizunari buruzko lankidetzaproiektuak sortzea; loturak eta sareko lana sortzea kultura-ekipamendu bihurtutako ekipamendu industrialen artean; Poloniako artistekin jarduerak programatzea; harremanak sortzea hezkuntza profesionalaren arloan; *Belle Époque*-arekin loturiko eragin frantziarraren ondare-balioari elkarrekin heldzea; edo, egun Gipuzkoako enpresa-sektoreak Poloniarekin dituen harremanez baliatuz, plataformak sortzea artisten eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzeko —adibidez, *Disonancias* proiektua—.

2011. urtean zehar, EKH izango den hiria aukeratu aurretik, lehendik ditugun harremanak indartuko ditugu hainbat hirirekin, esaterako Wrocław, Varsovia, Gdansk edo Lublin.

Nolanahi ere, 2016ko EKH izendatzen bagaituzte, aukeratu den Poloniako hiriarekiko harremanek beren isla izango dute gure aurrekontuan, komunikazio-estrategian eta adierazpenaren jarraipen-eta ebaluazio-sisteman. Aukeratutako hiri poloniarreko unibertsitate garrantzitsuena, **DSS2016EU**-rekin batera ebaluazio-sistemei buruzko ikerketa-proiektua zuzentzera gonbidatuko dugu.

Aldi berean, euskal eta espainiar turismoa Polonian eta inguruko lurraldeetan (Alemania, Txekiar Errepublika, Finlandia eta Suedia) sustatuko dituen estrategia turistikoa bat diseinatuko dugu, eta baita lurralde horietako sektore zehatzentzako erakargarriak izango diren era askotako produktu turistikoa ere.

## 8.A EUROPAR DIMENTSIOA. NOLA PENTSATU DU HIRIAK BERE LURRALDEKO ETA BESTE ESTATU KIDEETAKO KULTUR ERAGILE, ARTISTA ETA HIRIEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEA KULTUR ARLOAN?

Gure laguntzak funtsezko bi eskenatoki hartuko lituzke.


Lehenik: **DSS2016EU** gure proiektuaren edukiekin lotura berezia duten gaiak Europako gai-zerrenda kulturean eta artistikoan uztartuz: elkarbizitza, indarkeria, hezkuntza, hizkuntzak eta lengoaiak, bioaniztasuna, hirigintza... Eta arlokako gai-zerrendetan, aldiz, kultura eta artegintza tresna eta bide moduan uztartuz, arlokako erantzunei heltzeko eta eremu horretan aurrera egiteko.

Donostiak eta Hautagaitzak hartzen duen lurraldeak Europa mailako arloetan bakearen eta giza eskubideen alde ari diren sare eta programetan ardura eraginkorra betetzen dute: hiri hezitzaileak, zientzia, mugikortasun iraunkorra, kalitate demokratikoa, herritarren partaidetza edota nazioarteko lankidetzak — adibidez, URB-AL edo Interreg, mugaz haraindiko lankidetzak eta lurralde garapeneak — eta baita Europako Kontseiluko Kulturarteko Hirien Sarean sartzeko eskaera ere, hala nola, Nazioarteko Zinemaldia, Giza Eskubideen Zinemaldia, Jazzaldia, edota MEDIA programa europarra.

Hala ere, Donostiaren partaidetza ez da Europako kultur sare garrantzitsu hauetan ageri: Les Halles, Banlieux d'Europe, Culture Action Europe, European Forum for Arts and Heritage, Euroscience, Les Rencontres, AITM edo Soul for Europe.

Hortaz, Europako kultur sare horiekin harremanak piztu nahi ditugu, haiekin konektatu, haiekin lan egin, bi mundu horiek elkarrengandik hurbil jartzeko. Gure partaidetza eskatzen duten sareetan sortzen diren gaiak eta gogoetak kultur sareetan uztartu nahi ditugu, harremanetan jarri eta jakintzaren mesedetan arituko diren konexioak landu eta ezarri.

Bigarrenik: sarean bertako eta nazioarteko eragile ezberdinen arteko lankidetzak bultzatuko duten lan sistemak garatuz. Horretarako, hainbat estrategia erabiliko ditugu: *2000n 16*, ekimenak tokian tokitik aterako ditugu hiritik 20, 201 eta 2.016 kilometrotara egongo diren hiru zirkulu zentrokideetara; *Europa: nabigaziorako garun berezia* ibaien inguruan izango da, urezko eta neurona-bidezko harreman korapilo handiak bezala; *Europa zabalean*, Europako beste hiri eta proiektuekin lan egiten utziko gaituen behatokia, lanerako aukera horiei erne egonez eta modu eragilean erantzunez; *Proiektu kapitalen artxibatzea*, Europako Kultur Hiriburua izan diren edota izatekotan diren hirietako proiektuekin osatutakoa (Atenasko Kultur Hiriburuen Dokumentazio Zentroa bezalako plataformen osagarri).



## 8.B EUOPAR DIMENTSIOA. NOLA PENTSATU DU HIRIAK EUOPAKO KULTUR ANIZTASUNAREN ABERASTASUNA AZPIMARRATZEA?

Gure hizkuntz aniztasuna lengoia eta nortasun konplexuak biltzen dituen eremuan gauzatzen da, aniztasunaren Europa eraikitzeko ezin aproposagoa.

Egunerokotasun eleanitza bizi dugu Donostian: bi hizkuntz ofizial, gaztelera eta euskara; frantsesa, nukleo anitzeko eurohirian bizi garelako; ingelesa, nazioarteko funtsezko hizkuntza moduan, gero eta gizarteratuagoa belaunaldi berrien artean. Ahots aniztasuna agerikoa da gure egunerokoan zein Europan.

Hizkuntza gutxituen artean euskarak hartzen duen nagusitasun arduraren eskutik, eta lengoia zaharrek bizi duten krisiaren testuinguru honetan, gure proiektuak Europako aniztasun linguistikoak suposatzen duen ondarea azpimarratuko du, esparru txikietan garatzen diren euskara bezalako hizkuntzak babestu eta balioesteko. Bretoiera, frisiarra, galesa, galegoa edota gaelikoaren kasuan ere beste horrenbeste.

Dena den, Europak bizi duen aniztasun ondare horren ardatzean ere, gure kulturaren balio handienetako bat bezala, honako hau landuko dugu: gastronomia. Langintza horretan erreferente bihurtu baikara nazioarte mailan, eta Europarekin partekatu nahi ditugu zentzu horretan guk ikasi eta egindakoak.

## 8.C EUOPAR DIMENTSIOA. NOLA PENTSATU DU HIRIAK EUOPAKO KULTUREN ALDERDI KOMUNAK NABARMENTZEA?

Gai nagusi bat gehituko diogu eztabaidari: kultura dela elkarbizitza, kohesio soziala eta herritarren arteko elkartasuna bultzatzeko tresna. Arazoak denok ditugulako, ezberdinen arteko elkarbizitzan denok aritu nahi dugu eta denok nahi dugu gure bizitza esperientzia baikorren gainean eraiki.

Gure konplexutasuna onartuz, guztionak diren egoera konplexuak konpontzen jakiteko formulak partekatu nahi ditugu, Europa mailako elkarbizitzan sakontzen laguntzeko.

Kulturak duen eragin sozialaren aldeko apustua Europarekin partekatu nahi dugu; gizartearen erronkei eta Europan behar

dituen aldakuntzei aurre egiteko energia modukoa baita kultura. Terrorismoa, xenofobia, gutxiengoen diskriminazioa, emakumeen eta haurren kontrako bortxakeria, delitugintza antolatua, gerrako krimenak, gizakien esplotazio eta ustelkeria gure elkarren arteko bizimoduari eta Europaren etorkizunari kalte egiten dioten gaitzak direlako.

Kulturaren gaitasuna sustatu nahi dugu, globalizazioaren mende honetan lehertu diren hainbat krisiren aurrean gogoetak eta irtenbideak planteatzeko.

Europa zaharreko mugen eraginak ere gainditu nahi ditugu, eta guztiona den geografia baterantz abiatu, bizilagunen arteko ezinikusi aspaldikoak hobetzeko.

#### **8.D EUROPAR DIMENTSIOA. NOLA PENTSATU DU HIRIAK EUROPAREKIN DITUEN HARREMANAK SENDOTZEA?**

Europako Kultur Hiriburu izateak hiriaren eta Europaren arteko loturak indartuko ditu honako lau maila hauetan:

- Gure hiriaren eta gure lurraldeko udalerrien eta Europako beste hiri eta hiriburuen arteko harremanak bultzatuz, proiektu zehatzak garatuz, esaterako, kultur elkarteen eta enpresen arteko hartu-emanak, hezkuntza zentroen eta ikasleen artekoa, eta abar.
- Dagoen mugarteko lankidetzak indartuz (Donostia Biarritzeko Balletaren egoitza da, baita bertan ospatzen dira ere Biarritz eta Baionako rugby taldeen partidak) eta eurohiriko kultur eragileak gureganatuko dituzten proiektu berriak sustatuz, adibidez, BAB Aglomerazioa (Biarritz, Angelu, Baiona).
- Europako sareetan gure artisten, gure ekimen nagusien eta baliabide erreferentzialen partaidetza proposatuz eta indartuz, eta gure programazioan Europako artisten eta eragileen partaidetza bultzatuz.
- Partaide gareneko Europako sareetan sortutako gogoetak eta emaitzak bateratuz, guztiontzako konponbideak bilatu asmoz.



## 9. HIRIA ETA BERE HIRITARRAK

Galdera erantzun baino lehen, kultur agerkundea urteen poderioz egindako lanaren emaitza ospatzeko festa izango dela azpimarratu nahi genuke. Lan-prozesu baten ospakizun ekitaldia izango da, gure helburuen neurritik egokitutako dinamikak sortu dituen lan-prozesua, alegia, jomuga ditugun aldaketak prozesuen bidez ematen baitira. Kultur Hiriburuaren ospakizun urtea bezain garrantzitsua izango da bidean lortutakoa. [DSS2016EU](#) Hautagaitzak bultzatutako proiektuen eragina sendagarria izan dadila gure hiriko eta Europako hiriko hiritarrentzat, bidaia elkarrekin egin dugun guztiontzat. Kultur Hiriburuaren urtea ondo egindako lanaren festa izango da guztiontzat, uztaroaren festa.

### 9.A HIRIA ETA BERE HIRITARRAK. NOLA AURREIKUSI DU HIRIAK BIZTANLERIAREN INTERESA SORTZEA EUROPA MAILAN?

Gure proiektuaren ardatz diren gaietatik abiatuta (ezberdinen arteko elkarbizitza, lengoaien aniztasuna eta eurolurraldearekin harremana), funtsezko estrategia bi azalduko ditugu:

- Batetik, komunikazio-estrategia bat, gaiak bere berezkoa duten publikoekin harremanetan jarriko dituen: eragileak (espezializatuak edota orokorrak) zeintzuk diren zehaztuz eta haiengana hurbilduz, dauden sareetara hurreratuz, gai horien gainean dagoeneko lanean ari diren edota antzeko bizipenak izan dituzten herritarrak hiritara eta erakundeetara inguratuz. Gero eta ugariagoa den publiko baten interesa piztu nahi genuke hori bereziki, «oporlanetan» bidaiatzen den jendearena hain zuzen (lanaren arduragatik batera edo bestera bidaia egin beharra eta, aldi berean, lekuaz gozatzeko aukera aprobetxatzen duten pertsonak).
- Eta bestetik, eremu zabaleko begirada bat eskainiko duen estrategia bat, xarma handiagoa eskainiko duena. Izan ere, ardatz diren gai horietako bakoitza modu global, plural eta anitzean landuko da. Espezializatuena edota finena, ikusgarriena, eskuragarriena edo normalizatuena den horretatik hasi eta

gertukoena, herrikoiena eta ezezagunena edo zalantzarriena den horretaraino iritsi arte. Bertako eta mundu mailako ikuspegiak biak uztartuz. Ardatz diren gaiak eremu zabaleko gunetara eraman daitezke, **ELKARBIZITZAREN** funtsak, adibidez, gastronomiaren, kirolaren edo zinearen eskutik landu daitezkeelako, elkarren artean oso ezberdinak diren publikoentzat erakargarri egiteko.

Landuko ditugun gaiak Europako eremuaz haratago dauden lurraldeei eragiten dietela uste dugu, eta dagoeneko haiekin harremanetan eta elkarlanean gaude, adibidez, Hegoamerikarekin.

Programazio hau kultur turismorako aitzaki ederra ere izan daiteke, eta nazioarte mailan piztu dezake interesa, nazioartekoak diren ekimenek leku hartuko dutelako bertan, baita nazioartekoa ere den komunikazio-estrategiaz.

## **9.B HIRIA ETA BERE HIRITARRAK. NOLA AURREIKUSI DU HIRIAK BERTAKO, INGURUNeko ETA PROGRAMAREN PARTE DEN INGURUKO ESKUALDEKO ARTISTEK, ARLO SOZIOKULTURALEKO PERTSONEK ETA BIZTANLEEK PARTE HAR DEZATEN ANIMATZEA?**

**DSS2016EU** Hautagaitza osatzen duten proiektuak guztionak diren eskenatokietan sortutako ideietatik jaiotakoak dira eta, aldi berean, talde lanean garatu, burutu eta aztertu dira. Hortaz, lurraldeko eragile ezberdinen partaidetzak dagoeneko lantzen ari garen egiteko modu batean hartzen du abiapuntua.

Horren adierazgarri Olatu Talka *selfmade* Festibalerako erabili genuen formula izan daiteke: hiritarrak eta haiek osatzen dituzten elkarteak eta eragileak dira programazioa sortu eta burutzen dutenak, eta ohiko den horretatik kanpora begiratzuz, hirian dagoen indar kulturala azpimarratzen du egun gutxi batzuetan zehar, 2016koa izan daitekeen hori irudikatuz. Milaka pertsonak milaka pertsonen artean antolatu den ekimen baten inguruan gozatuz. Hori bezalako beste esperientzia batzuk eredu hori Europa mailan ere garatu dezakegula erakusten digute, eta ez hirian bertan edo euroeskualdean bakarrik.

Artistei dagokionean, talentu berriak ekarriko dituzten estrategiak garatu nahi ditugu, bertako artisten arteko harremanak erraztuz eta haien erlaziozko eremua zabalduz, berrikuntzaren aldeko sinergiak bilatzeko, urte hauetan zehar, prozesu guzti honetan zehar haien arteko harremanak eta kontaktuak gordeko dituen bihotz baten moduan, 2016an, pertsona horiek guztiak, eta beren sare eta ezagutzak Donostian bildu daitezzen. Artisten eskuetan jarriko ditugu gure proiektuaren gai nagusien gaineko sorkuntza sustatuko duten baliabideak.

### 9.C HIRIA ETA BERE HIRITARRAK. NOLA AURREIKUSI DU HIRIAK IRAUNKORRA IZATEA ETA EPE LUZERA HIRIAREN KULTUR GARAPENERAKO OINARRIETAKO BAT IZATEA?

Iraunkortasuna funtsezko baldintza da **DSS216EU** Hautagaitzan; bere eraikuntzan partaide izan diren eragile guztiek lanean jarraitzen dute, bertatik sortuko diren aldaketak luze iraun dezaten.

**DSS2016EU** Hautagaitzak Europan egiten den sareko lana, lan sistema berriak, konexioak atzera bueltarik izan ez eta agerraldiaren ospakizunaz haratago eragin dezatela nahi du. **GORAKO EFERBESZENTZIA** ekarriko duen prozesua nahi dugu: erdian sartzen diren etengabeko ekimen multzoa, gorako eraginez pizten dira 2016an gailurra ukitzera eta gero nahastu egiten direnak kultur sistemari, gorputzari, organismoari ondorio sendagarriak edo eraldakorrek ekarritik.

2016. urtearen ondoren proiektuak ere aurrera egingo du, sustraiak programa eta baliabideetan botako dituelako, modu naturalean, eta lurraldeko kultur eragileek 2016. urtera bitartean sortuko diren erlazio eta dinamikak bere lan egiteko moduetan uztartu egingo dituztelako.

Erakundeek EKHra begira 11 urteko denbora eperako —2009tik 2020ra— onartu duten aurrekontua ere aipatu dugun iraunkortasun horren adierazgarri garbia da.

## 10. NOLA SORTUKO DITU HIRIAK SINERGIAK EUROPAKO ERAKUNDEEK BULTZATUTAKO KULTUR EKIMENEN LAGUNTZAZ?

Gure proiektua bat dator Europako Kultur Agendak babesten duen ideiarekin, hau da, kultura nortasun eta herritar europarrak indartzeko funtsezko tresna dela. Bada, hori kontuan hartuta, **DSS2016EU** Hautagaitzak sinergiak bultzatuko ditu segidan aipatzen ditugun lau maila hauetan:

1. Europako Batasuneko programetan parte hartuz, Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren programetan bereziki; besteak beste, Kultura Programa, MEDIA Programa, (...-ren) Europako Urtea, Eleaniztasuna, Erasmus, Comenius, Udaberria Europan, Gazteak martxan, Europa Herritarrekin.
2. Europako Kontseiluaren programa eta ekimenetan partaide izanez, bereziki giza eskubideen, tokian tokio demokraziaren, hezkuntzaren eta kulturaren alorrei lotutako gaietan.
3. Europako erakundeek finantzatutako sareetan parte hartuz, baita Kultura 2000 programan ere.
4. Kultur Hiriburuen esparruan, eremu zehatzetan esperientzien eta sareko lana elkartrukatzuz, adibidez, herritarren partaidetza kultur adierazpenean.

Bereziki, gure proposamenaren barruan dagoen *Europa zabalean* sistema helburu hori betetzeko eratu da, Donostia partaide den hainbat programatan hiriaren ardura areagotuz eta gure kultur programarekin zerikusia duten beste hainbat programatan txertatuz. Behatoki bat da, Europako beste hiri eta proiektuei adi egoteko eta haiekin lankidetzan aritzeko aukera emango diguna.

## 11. BA AL DU PROGRAMAK TALDE BEREZIEI (GAZTEAK, GUTXIENGOAK, ETA ABAR) ZUZENDUKO OSAGAIRIK? HORIEK AIPATU.

Gure programen, proiektuen eta ekimenen atal bat talde bereziei zuzendutakoa da, eta arrazoiak izan daitezke sozialak, interes eremuzkoak edo ezagutza mailakoak. Gutxiengo anitzez osaturiko gehiengoa da. Adibide zehatz batzuk jartzearren: *EremuEramangarri*, hedabideen alfabetizazio eta balio-hezkuntzarako proiektua, nerabeei zuzendutakoa, tokian tokiko kultur zentroen bitartez, adibidez, hezkuntza sistema arautuaren bitartez: *Dakidala ez dakidan euskara guztia*, euskaraz ez dakitenei zuzendutakoa bereziki; *Pertsona Miragarrien Liga*, ezintasun fisiko edota intelektualak dituzten pertsonen ahalmena indarberritzeko ekintza multzoa; *Harresian barna-Barne istorioak*, ikuspuntu kritiko batetik lana espetxeetan eginez; *Zu ni bazina*, indarkeriaren biktimak eta giza eskubideetan adituak eta profesionalak bilduko dituen; *Beste arkitektura batzuk, beste hirigintza bat*, hiriko espazioak diseinatzeko dituzten profesional eta arkitektoei zuzendutakoa; *Feministaldia*, punta-puntako teoria eta ekintza feministak plazaratuko dituen programa, edo *Nagusiago*, adineko pertsonen zuzendutako programa.

## 12.A ADIERAZI HIRIAK EDO GERTAKIZUNAREN ANTOLAKETAZ ARDURATZEN DEN ERAKUNDEAK ZEIN HARREMAN EGIN DITUEN EDO EGITEA AURREIKUSI DUEN HIRIKO KULTUR ERAGILEEKIN.

Hasieratik bertatik dira lurraldeko kultur eragileak —artistak, elkarteak, enpresak eta erakundeak— [DSS2016EU](#) Hautagaitzaren programen forma erabakitzen eta proiektuak sortzen ari direnak. Horretarako, bakoitzak berezia duen jakintza hori ematen ari dira, baita haien arteko erlaziozko sareak eskainiz ere, nazioarteko mailan islatzeko. Horren adierazgarri dira laborategi prozesuan partaide izan diren pertsonak, eta haietatik sortu den Hautagaitzaren kultur programa edota Olatu Talka *selfmade* Festibala, Hautagaitzaren lurraldeko ehunetik gora eragilek parte hartu baitzuten bertan.

Mugikortasuna bultzatuko dugu, elkartrukea, era eta jatorri ezberdinetako eragileen arteko hartu-emanak, bertako adituen eta

Europa eta nazioarteko adituen arteko orekari eutsiz, jakintza akademikoenaren eta ekintza aplikatuenean arteko oreka galdu gabe.

Hala ere, harremanak Europako testuinguruan hobetzeko, kultur eragileei ardura gehiago emango dieten estrategiak garatuko ditugu, lengoaien ezagutza erraztuko duten programak bultzatuz eta Europako kultur sareak eta erakundeak nola funtzionatzen duten erakutsiz.

## **12.B ADIERAZI HIRIAK EDO MANIFESTALDIAREN ANTOLAKETAZ ARDURATZEN DEN ERAKUNDEAK ZEIN HARREMAN EGIN DITUEN EDO EGITEA AURREIKUSI DUEN HIRITIK EDO LURRALDETIK KANPOKO ERAGILEEKIN.**

Zentzu horretan, sare bitarteko lana egingo dugu eragileekin, bai hiritik kanpo, bai herritik kanpo daudenean, eta gainera gure programazioan ardatz diren proiektu zehatzetan.

Horren adierazgarri dira EKH proiektuari buruz egin ditugun aurkezpenak, elkarrekin lan egiten dugun hiri eta erakundeetako beste proiektu eta sareetan, guztionak diren interesak zehazteko eta elkarrekin aritzeko aukerak ez galtzeko: [Reina Sofia museoa](#), [SurfRider Foundation Europe](#) (nazioarteko izaera duen elkarte horrek Donostia 2010eko Itsas Ekimenean Europako Hiriburu izendatu zuen gure kultur programaren ardatzetako batekin duen loturari esker), [Bakearen Aldeko Alkateen Sarea](#) edo gure artistak eta kultur eragileak partaide diren sareak.

Donostia Europako Kultur Hiriburu izendatzen badute, Espainiako beste hiriekin konexioak indartuko ditugu eta, partaide garen sareen bitartez, beren Hautagaitza aurkeztu duten beste hiri batzuk ere parte hartzen duten proiektuen garapena proposatuko dugu, horrela norberaren Hautagaitza prestatzeko prozesuan bildu den ezagutza guztia elkarrekin bideratzeko. Gure Hautagaitzaren maila pedagogiko handia azpimarratu nahi dugu, EKHaren eta Hiri Hezitzaileen Sareen artean eman daitekeen erlazioaren indarra, edota EKHaren eta Kaleidos.red (tokian tokiko izaeraz sortutako kultur proiektu eta politikak garatzeko Espainiako hirien sarea) Fundazioaren artean eman daitekeena.

Dena den, Europako eremuari dagokionean, gure kultur programan, nazioarteko eragileak eta sareak zeintzuk izan beharko liratekeen arlokako beren interesaren arabera zehazten da proposaturiko ekintza bakoitzarentzat.

### 13. ZERTAN DA BERRITZAILEA ZUEN KULTUR PROIEKTUA?

**DSS2016EU** Hautagaitza zentzu sakonean da berritzailea, eredu aldaketa bat proposatzen baitu, kultura egiturazko ardatz (soziala, ekonomikoa, politikoa) modura ulertua izango den eredu bat, eta sorkuntza, ikerkuntza edota herritarren partaidetza balioetsiko duena, elkarbizitzan eragiteko eta gizartearentzat baikorra izango den eraldaketa lortzeko.

Gure Hautagaitzari izaera berritzailea ematen dioten funtsak zerrendatu ditzakegu, elkarren artean ezberdinak diren maila hauetan laburbilduz:

- Gizarte eta ekonomia mailako kulturaren eta berrikuntzaren zeregin orokorrari dagokionean, *slow innovation* izeneko ereduaren inguruan arituko gara, hau da, luzetako eta tokian tokiko prozesuak planteatuz, ustekabeei eta nekez gertatzekoei denbora eta aukerak emanez, aurrerakuntzen eragin soziala sarituz, emankortasunari produktibotasunaren gainetik lehentasuna emanez.
- Gaiei dagokionean, kulturaz haraindiko proiektua proposatzen dugu, arazo konplexuei buruz hausnarrean aritzeko, gure etorkizunari eta Europako etorkizunari eragiten dioten kezken inguruko galderak egiteko, benetan balio duten ezohiko konponbideak emateko.
- Lurraldeko kultur politikari dagokionean, kultur eredu aldatu nahi dugu, departamenduzkoa eta espezifikoa den horretatik departamenduen artekoa, erakundeen artekoa eta zeharkakora igartzeko, horizontaltasunetik eta deszentralizaziotik, hainbat eremu publiko-pribatuekin elkarri eraginez, kultur programazioek duten ohiko izaera gaindituz eta sistema ireki bat proposatuz, eragile ezberdinen eta, oro har, herritarren partaidetza eragilea eta erantzukidea oinarri harturik.

- Proiektuaren oinarri diren lan baliabide eta metodologiari dagokionean, azterketarako eta komunikaziorako formula berriak ezarri nahi ditugu, hartu-emanak eta eragin soziala saritzeko.
- Zentzu globalari dagokionean, pedagogikoa da Hautagaitza honen izaera, eta balio hiritarrak eta demokratikoak hartzen ditu ardatz.

#### 14. HIRIAK HIRIBURU IZENDAPENA LORTZEN BADU, ZEINTZUK IZANGO LIRATEKE ERAGINAK EPE ERDI ETA LUZERA, IKUSPUNTU SOZIOEKONOMIKO, KULTURAL ETA HIRITAR BATETIK? AURREIKUSI AL DUTE UDAL AGINTARIEK KULTUR OSPAKIZUNA BURUTU ETA GERORA EGINGO DIRENEI BURUZKO ASMO-ADIERAZPEN PUBLIKOREN BAT EGITEA?

EKH izendapenak kultur politikak eta dinamikak aldatu eta berrituko ditu, hirian eta Hautagaitzaren lurraldean. Horretarako, pertsonen gaitasun sortzailea bultzatuko dugu, herritarren nagusitasuna kultur ekimenen kudeaketan eta Europako beste hiriekin koprodukzio eta lana batera eginez. Beraz, Europara zabaldu eta Europara gerturatuko gaitu kulturaren eskutik.

Aldi berean, Donostia sendotu eta indartuko da kultur turismorako helmuga izateko, esperientzien hiri bihurtzeko, lanpostuen sortzea bultzatuz eta hotel, kultur eta zerbitzuen eskaintza berriak areagotzeko.

Komunikazio egitura berrien eratzea ere bizkortuko du, Donostiaren konexio-bideak hobetuko dituena; esaterako, Abiadura Handiko Trenaren bitartez, hiru euskal hiriburuak lotuko dira (Donostia-Bilbo-Gasteiz), Euskadi gainerako Espainiara eta Europara zabalduz. Horrekin batera, Donostialdearen metropoli-barrutiaren garapen iraunkorra ere erraztuko du, hirigintzako politikak, politika kulturalak eta sozialak bultzatuz, adibidez, Pasaiako Badia birsortuz eta Baiona-Donostia euskal kultur eurohiria indarberrituz.

EKHren urtea amaitu orduko, gerora egingo direnei buruzko asmo-adierazpenari dagokionean, 2016. urtearen ondorengo urteentzako onartu den aurrekontua da horren adierazgarririk hoberena. Erabateko aurrekontuaren %22 ere bideratuko da, hurrengo lau urteetan, 2016ra.



## 15. ZEIN PROZEDURA ERABILI DA HAUTAGAITZA HAU DISEINATU ETA PRESTATZEKO?

**DSS2016EU** proiektua partaidetza-prozesu zabal, ireki, anitz eta alderatu baten emaitza da. 2016ko Hautagaitzaren Bulegoak zuzentzen du, eta bere barne-egitura Donostiako Udaleko Herritarren Partaidetzarako Bulegoaren inguruan antolatu da.

2008ko irailean, herritar guztiei irekitako lehen topaketak egin genituen Victoria Eugenia Antzokian. Hainbat gizarte-eragilek hartu zuten parte, eta arlo askotako aditu ospetsuek ere bai (kultura, kirola, filosofia, arte eszenikoak, kultura-kudeaketa, unibertsitatea eta enpresaren mundukoak), adibidez Daniel Innenarityk, Josep Ramonedak, Lourdes Fernándezek edo Santiago Erasok. Topaketa horiek bi helburu zituzten: batetik, hautagaitza-prozesu bat abiaraztearen aukera eta erronkei buruzko hasierako gogoeta eta eztabaida piztea, eta bestetik, proiektuaren balizko ikuspegiak identifikatzea.

Hilabete geroago kanpora begiratu genuen, Europako beste hiri batzuetara. Saio ireki baten bidez, Santiago de Compostela 2000, Graz 2003, Luxenburgo 2007, Avignon 2007 eta Linz 2009 Hautagaitzen arduradunek Europako Kultur Hiriburu izateko sortutako proiektuak azaldu zizkiguten. Beste esperientzia batzuetatik ikasi genuen, eta barne-gogoetan sakondu ginen.

Aldi berean, eta 2009ko martxora arte, bilera asko egin genituen proiektuan aurre egin beharreko premia, arazo eta gaiak aztertzeke, eta proposamenak jasotzeko ere bai, Europako Kultur Hiriburuaren indar-idea eta kultura-programaren ardatzak zehazteari begira.

Gizarteko hainbat sektoretako 1.500 pertsona eta erakunde baino gehiagorekin bildu ginen: irakaskuntza-zentroak, unibertsitateak, merkataritza, ostalaritza, antzerkia, musika, dantza, artistak, galeristak, kultura-kudeaketako enpresak, gazteak, Erasmus programako ikasleak, Donostian bizi diren poloniarrek, pertsona ezinduek, etorkinak eta adineko pertsonak, eta 2016ko Hautagaitzaren Bulegora proiektua ezagutu eta proposamenak egitera etorritako pertsona anonimoak. Hiriko auzoetan egindako bilerak nabarmendu behar dira, iritziak alderatzea eta hasierako fasetik lurralde-dimentsiorik mikroena sartzeari helburu zutenak. Gure proiektuan euskarari eta hizkuntza gutxituei heltzeko modua aztertzeke egindako jardunaldia ere azpimarratu behar dugu.

Gogoetak, ekarpenak eta ideiak aztertu ondoren, informazio guztia antolatu eta egituratzen zuen ideia-mapa prestatu genuen. Material hori herritarrei aurkeztu genien, ordura arte prozesuan parte hartu zuten pertsona guztiak gonbidatuz.

Geroago, 30 laguneko talde anitz bat eratu genuen, profesionalen eta herritarren osatua. Ideia-mapatik abiatuz, indar-idea eta ardatzak proposatu zituen taldeak, eta proposamen hori Erakunde Arteko Batzordeari aurkeztu zitzaion, azken onespina eman ziezaien.

2009ko apirilaren 23an, indar-idea eman genuen ezagutzera, *Herritarren energia-olatuak*, eta baita proiektuaren ardatzak ere.

Jarraian, hemen eta nazioartean iritziak alderatzeko faseari ekin zitzaion, Santiago Erasoren zuzendaritzapean (Hautagaitzaren Zuzendari artistikoa izan da 2009ko maiatzaz geroztik). Erakunde, talde, enpresa, profesional eta sortzaileek beren iritziak eman zituzten, programazioari buruzko proposamenak egiteaz gain. Fase horretan, Kulturaren Europako beste Hiriburu batzuetako zuzendariekin egindako lana nabarmendu behar da, adibidez, Robert García, Franco Bianchini edo Hans Dietrich Smith-ekin egindakoa.

2009. urtearen amaieran *dss2016lab* izeneko laborategia antolatu genuen, 70 **PERTSONA** baino gehiago biltzen dituen (artistak, kritikariak, ekintzaileak eta gure Hautagaitza-proiektuekin loturiko gaietan adituak direnak), programazioari buruzko ideia zehatzak lantzeko asmoz.

Urtarrilean sintesi- eta destilazio-prozesua abiarazi genuen, programazio-eskema sortzeko helburuarekin. Eskema hori da gure kontakizunaren oinarria, gure azken proiektuaren euskarria.

Azaldutako prozesu horrekin batera, herritarren inplikazioari eutsi diogu, partaidetza- eta mobilizazio-dinamikak garatzearen bidez. Dinamika horien ondorioz gertakizun jendetsuak antolatu dira, adibidez Itsas Ekimenak (Donostia 2010eko Europako Hiriburua izan da gai horretan), edo aurreneko Olatu Talka, herritarrek herritarrentzat pentsatutako eta egindako jaialdia. Horrelako gertakizunen ezaugarririk garrantzitsuena da lehen existitzen ez ziren dinamikak sorrarazi dituztela; sinergiak eta konplizitateak sortu dituzte kultura-eragileen, erakundeen eta herritarren artean, elkarren ezagutza eta gizarte berritzeko behar den konfiantza handitzen dutenak.



# ADIERAZPENAREN PROGRAMAREN EGITURA

## 1. HIRIA «EUROPAKO KULTUR HIRIBURU» IZENDATZEN BADUTE, ZEIN IZANGO LITZATEKE KULTUR PROGRAMAREN EGITURA (ADIERAZPENAREN ILDOAK ETA GAI ZERRENDA)? ZENBAT IRAUNGO DU PROGRAMAK?

Europako Kultur Hiriburua izateko gure proiektuak hiru aditz nagusi ditu, hiru aditz gidari, guztiona behar duen kontakizuna sortzeko. Hiru aditz buru.

**ELKAR=BIZITZEN** bake-kultura eta balioetan oinarritutako hezkuntzan.  
**ELKAR\*HIZKETAN** hitzen, hizkuntzen eta lengoaien hirian.  
**ELKAR>ERAGITEN** eskal eurohiri kulturalean.

Hiru adierazpen horiek gure Hautagaitzaren mamia aurkezten lagunduko digute: elkarbizitzen irakatsiko digun kultura bat piztea, batez ere indarkeriaren aurka eragiteko eta gatazka ezberdinek izan dezaketen indarra modu zuzenean bideratzeko; gure bakarkako eta taldeko bizimodu egunerokoa onbideratzen lagunduko dugu, bizi kalitatea eta pertsona gisa jator jokatu ahal izateko giza garapen nahikoa bermatuz; Europa osoko hizkuntzen, lengoaien eta kultur adierazpenen bateratzea ahalbideratu nahi dugu, irekiak diren kodeen ikuskeratik; eta modu iraunkorrean egiten ahaleginduko gara, paisaiaren (bio)aniztasuna eta bere baitan hartzen gaituen lurraldearen konplexutasuna aintzat hartuz.

Hiru adierazpen horiei estu lotutako zazpi itsasargi hartu ditugu, beren argiek gure proiektua gidatu dezaten. Itsasargietako bakoitzak

izenburu metaforiko bat dakar berekin, hiztegi naturalista batetik jasotako esanahia duena, eta baita azpitu ere, haien zentzu soziopolitikoaz azpimarratzeko.

ELKAR=BIZITZEN	ELKAR*HIZKETAN	ELKAR>ERAGITEN
<p>SANTA KLARA UHARTEKO ITSASARGIA DONOSTIA</p> <p>bake eta adostasunaren hazitegia afektuen hiria</p> <p>IGELDOKO ITSASARGIA, DONOSTIA</p> <p>bizitzaren ibaiak hiri hezitzailea</p>	<p>SOKOAKO ITSASARGIA, ZIBURU</p> <p>itsasoa bete ahots hitzen hiria</p> <p>PLATAKO ITSASARGIA, PASAIA</p> <p>portu irekia ezagutza partekatua hiria</p>	<p>HONDARRIBIKO ITSASARGIA</p> <p>zubideak eurohiri kulturala</p> <p>ZUMAIA ETA BIARRITZEKO ITSASARGIAK</p> <p>(bio)aniztasunaren paisaia hiri (eko)ntzientea</p>

Programa EKH izendapena lortu bezain pronto jarriko da martxan, 2016an ospatu eta gerora begira ere dinamikak sortzeko helburua duen lan-prozesuaren bidez.

## 2. ZEINTZUK DIRA URTEKO EKIMEN NAGUSIAK?

Ur-jauziaren antzera dator programaren egitura zazpi itsasargi horietatik behera, 12 programetatik igaro eta ekintzetara iritsi arte. Proiektu itsasargi bakoitzari lotuta, kultur agerkundearen urtean zehar ekitaldi berezi batzuk ospatuko ditugu, aurreko urtetan zehar egindako lanari amaiera bikaina emateko. Proposamenen antolaketa eta zehaztasunak «Kultur Ibilbidearen Egitaraua» izeneko atalean ikus daitezke. Hor agertzen dira, besteak beste:

*Jai bai, bakea ere bai.* EKHaren urtea ireki eta itxiko duten ekitaldiek urtarilaren 20ko Danborrada egunarekin bat egingo dute, hiriko patriaren festa ospatzen deneko eguna baita, milaka pertsonen kaleak danbor hotsez hartzen duteneko.

*Zinea giza eskubideekin bat.* Programak zinegintzan jarriko du arreta berezia, eta ondare gisa utziko ditu gure hiru aditz nagusien gainean arituko diren hiru pelikula, izen handiko eta berriak diren zinemagile tandem bat osatzen duten Europako zuzendariek egindakoak. Filmak Donostiako Nazioarteko Zinemaldian eta beste zinemaldi batzuetan emango dira gero.

*Gerra eta Bakea.* Artearen historiaren memoriatik hasi eta arte garaikidearen azken agerpenetaraino, erakusketa multzo bat izango da. Bertan, Europako historiaren eta orain gutxiko gatazka esanguratsuenen gerra eta bake irudigintza jasoko duten lanak ikusi ahal izango dira.

*Oroimenaren lorategia. Elkarbizitzarako haziak Europan.* Bakearen alde ari diren gazteek osatutako Nazioarteko lan-eremu bat antolatuko da, eta 2016an hazi-lorategia eratuko da, eta herrialde bakoitzak aukeratu duen Europako elkarbizitzan egoera esanguratsu bat sinbolikoki erakusteko behar diren haziak bilduko ditu.

*Les adventures de Alicia in miregarri World.* Liburu hedatua, Lewis Carrol idazlearen nobela oinarri, bertako zein nazioarteko artista eta kultur sortzaileek eginga. Ondoren, *off-line* eta *on-line* erakusketa formatuan erakutsiko da hizkuntza eta lengoia ezberdinetan (sms, braille, *graffiti*, *twitter*...).

*Elkar hitz egiten hasteko unea.* Aldi baterako eremuak ezarriko dira, izaera iragankorra edota mugikorra izango duten arkitekturak, guztiak zerbitzugune, tren eta autobus geltokietan ezarriak. Ekintza horrekin, istorioak kontatzea eta ingurunea modu ezohiko batean ezagutzea lortu nahi da.

*Batera eta nahasi.* Nazioarteko deialdi feminista. Jai giroan ospatuko da, baina izango ditu aldarrikapenatarako tarreak ere. Emakumea izango da ekintza guztietan protagonista.

*Zer dago jateko?* Askotariko ekintzak hartzen ditu programa horrek: ekintza hezitzaileak, elikagaien kontsumoa eta ardura soziala orekatuko dituzten formulen bilaketa, izaera herrikoia duten ekintzak, eta gure gastronomi ondareaz gozatzeko utziko diguten ekimenak.

*Oihartzunari esan. Kontxari adi.* Kanean partaidetza bultzatuko du, mezuak bidali eta jasotzeko, askatasunez adierazteko eta mintzatzeko hainbat eremu egokituz.


*Gaur 6tan sorpresa!* Gutunazal sistema baten bitartez, **DSS2016EU** kultur agerraldia ezustekoz eta magia beteko duen programa.

*Uda-gau bateko ametsa.* William Shakespeare hil zela 400 urte beteko direnez, haren obra berezi hori antzeztuko da Kristina Enea Parkea bezalako antzoki natural eta magikoan.


# programaren egitura —

Aditz Nagusiak, Proiektu itsasargiak, Programak

## ELKAR=BIZITZEN



## ELKAR\*



Nabigazio-tresnak.  
Lan sistemak, formatuak eta eremuak

  
**AUZOlab**  
—  
*herritarren energia laborategiak*

  
**ideien uharterdia**  
—  
*ikaskuntzaren eta esperientziaren uharteak*

# HIZKETAN

# ELKAR>ERAGITEN

portu irekia

—  
ezagutza partekatuaren hiria



P<sub>07</sub>  
cc — capital commons

P<sub>08</sub>  
ikus-entzunezkoaz haraindiko gramatika berri baten alde

TAGAK  
Kode zabaleko zientzia eta kultura  
Teknologia digitalak

zubideak

—  
eurohiri kulturala



P<sub>09</sub>  
mugarik gabeko igarobideak

P<sub>10</sub>  
elkar ezagutzen hasteko unea

TAGAK  
Mugak Gobernantza Mugikortasun iraunkorra

(bio)aniztasunaren paisaia

—  
hiri (eko)ntzientea



P<sub>11</sub>  
lur eta ozeanoen kondairak

P<sub>12</sub>  
bene-benetakoa eman

TAGAK  
Lurraldea Urbanismoa Hiria eta natura

✂  
pagadi

—  
desira eta zorakerien basoa



nabigazio-mapak

—  
lankidetzeta mapa eta sareak

*Re-Play/Re-Mix.* Liburu-cd baten edizioa eta Europako hainbat ereserki eta Europako Batasunaren ereserki gisa Beethovenen Bederatzigarrenaren moldaketak bilduko dituen festibala.

*Eremu Eramangarria.* Alfabetizazio kanpaina hedabideen aurrean. Besteak beste, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian gazteek sakeleko telefonoekin egindako zientzia-fikziozko pelikula bat eskainiko da, Europako etorkizunari buruzkoa.

*Pertsona Miragarrien Liga.* Kirol Egokituen Nazioarteko Topaketa egingo da Donostian, beste jarduera batzuen artean.

### 3. NOLA AUKERATUKO DITU HIRIAK URTE HORRETAKO EGITARAUAREN PROIEKTUAK ETA EKITALDIAK?

Laborategietan eta jarraipen taldeetan egindako azterketen ondoren erabakiko dira proiektuak, baldintza hauen arteko loturaren arabera:

- Gure kultur programaren barruan zehaztu diren ardatz eta gai zerrendarekin arduradun izanez, bestela ere burutzeko edota iraunkortasunez garatzeko zailtasunak izango lituzketen ekimen berritzaile eta apurtzailenei lehentasuna emanaz.
- Jatorri lokala, antzeko proposamenetan ari diren gizarte zibileko eragileen laguntzaz, haien balioa areagotzeko ez ezik, ahalmenez modu baikorrean ere eraldatzeko.
- Europan antzekoak diren errealitateekin hartu-emana bultzatuz, Europako sareen, eragileen eta artisten arteko elkarlanari elkarrekin adostutako konponbideak emateko.
- Aniztasuna eta oreka sustatuz proiektuen tipologian, ekintzen formatuan, publikoan, eta abar.



# III —

## GERTAKIZUNAREN ANTOLAKETA ETA FINANTZAKETA

### 1.1 ANTOLAKETA-EGITURA. ZEIN EGITURA MOTA AURREIKUSI DA PROIEKTUA ABIARAZTEAREN ARDURA IZANGO DUEN ERAKUNDEARENTZAT? NOLAKO HARREMANAK IZANGO DITU HIRIKO AGINTARIEKIN?

Donostia 2016ko EKH izendatzen badute, Hautagaitza bultzatu duten erakundeek (Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak) Partzuergo bat eratuko dute, zuzenbide publikoko figura juridiko bat. Proiektuaren estrategia, plangintza eta kudeaketaren bultzada nahiz koordinazioa erakunde bakar batean biltzea izango da horren helburua.

Partzuergoko kide anitzeko gobernu-organo goren gisa, Zuzendaritza Kontseilu bat eratuko da, proiektua sustatzen eta finantzatzen duten erakundeen ordezkariez osatua. Donostiako Alkatea izango da Zuzendaritza Kontseiluaren burua, eta bere ardura izango da Partzuergoaren jardueraren esparru orokorra zehaztea, Partzuergoa kudeatzeko antolamendu komuna finkatzea eta aurrekontuak onartzea.

Partzuergoan sartu ahalko dira helburu nagusitzat **DSS2016EU** Hautagaitza bultzatzea duten irabazi-asmorik gabeko erakunde

publiko edo pribatuak; adibidez, Kutxa Fundazioa (Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren gizarte-ekintza), Euskal Herriko Unibertsitatea edo Adegí (Gipuzkoako Enpresarien Elkarteá). Gaur egun, Partzuergoak lankidetzá-hitzarmenak dauzka sinatuta irabazí-asmorik gabeko erakunde horiekin.

Babesleen eta beste erakunde batzuen lankidetzá-hitzarmen espezifikoen bidez gauzatuko da, eta hitzarmen horietan zehaztuko díra lankidetzaren baldintzak.

Proiektua garatzeko, matrize itxurako egitura profesional bat aurreikusi da. Elkarrekin harremanetan dauden pertsona eta taldeen konstelazio baten modura dago antolatuta, eta pertsona zein talde bakoitzak, besteekin edo bakarka, proposamenak egin eta bere lana burutuko du, bere orbita jarraituz proiektuaren ardatz nagusiaren inguruan:

Kultura-ordezkaría, proiektuaren kontzeptuaren garapena bere dimentsio guztietan zuzentzeaz arduratuko dena; Zuzendaritza Nagusia, lan-eremu bakoitza bultzatu, planifikatu eta koordinatzeaz arduratuko dena; eta Sormen Zuzendaritza, proiektuaren xedea kultura-programazioaren egituran txertatuko duena.

Horiekin batera, lau lan-arlo funtzional: Arlo Ekonomiko-Finantzarioak, Sare Europarrak, Oihartzuna-Komunikazioa, eta Partaidetza-Mobilizazioa.

Sistemaren satellite gisa, Ondare Soziokulturala kudeatzeko Batzordea, Ebaluazio Batzordea eta Finantza Kontrolerako Batzordea, [DSS2016EU](#) taldearekin etengabe lanean ari direnak.

## 1.2 ANTOLAKETA-EGITURA. HIRIAREN INGURUETAN DAGOEN LEKUREN BAT ADIERAZPENEAN SARTZEN BALDIN BADA, NOLA ANTOLATUKO DA TOKI- ETA LURRALDE-KOLEKTIBITATEEN AGINTARIEN ARTEKO KOORDINAZIOA?

Agintarien arteko koordinazioa [DSS2016EU](#) Partzuergoaren bidez egingo da. Partzuergo horretan Hautagaitza zuzentzen duten lurralde-agintariek hartuko dute parte, alegia, Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak. Horrek lurralde-antolaketa eta koordinazioa erraztuko du.

Proiektu zehatz batean nahasitako herriekin lankidetzaz hitzarmenak sinatuko dira jarduera hori egiteko; lan- eta koordinazio-taldearen ardura izango da zeregin hori.

Gasteiz, Bilbo, Biarritz eta Baionarekin lankidetzaz hitzarmen espezifikoa egingo dira, lankidetzaren esparru orokorra, proiektuak eta adierazpenaren eskura jarriko diren proiektu eta baliabideak zehaztuko dituztenak.

### 1.3 ANTOLAKETA-EGITURA. ZEIN IRIZPIDE ETA MODALITATEREN ARABERA AUKERATU DA EDO AUKERATUKO DA GERTAKIZUNAREN ZUZENDARI ARTISTIKOA? ZEIN DA EDO ZEIN IZANGO DA BERE PROFILA? NOIZ GAUZATUKO DA BERE IZENDAPENA? ZEIN IZANGO DA BERE JARDUERA-EREMUA?

Donostiako Hautagaitzak dagoeneko badu Zuzendari Artistiko bat, proiektuan 2009ko maiatzean sartu zena. Hautagaitzaren Bulegoak hainbat curriculum aztertu zituen, eta Santiago Eraso izendatzea proposatu zion Erakunde Arteko Batzordeari, honako arrazoiengatik:

- Beste aditu batzuekin batera, Eraso lehenengo partaidetza-jardunaldietan izan zen. Bere txostenean, kultura-gertakizunen ereduak zalantzan jarri zituen, eta ideia iradokitzaileak eta desberdinak eman zituen.
- Eskarmentu handia du kultura-kudeaketaren arloan, eta bereziki, sortzaile berriei laguntzeko eredu berritzaileen bilaketan.
- Irizpide-independentzia eta koherentzia profesionala erakutsi du.
- Harreman estuak ditu Euskadiko, Espainiako eta Europako artista eta sortzaileekin.
- Euskadiko, Espainiako eta Europako kultura-sareak, ekipamenduak, eragileak eta dinamikak ezagutzen ditu.
- Ospe handia du, bai bere ibilbide profesional luzeagatik, eta bai aldizka hedabideetan kolaboratzen duelako.

Gaur egun, hauek dira bere erantzukizunak:

- Edukiak prestatzea eta kultura-proiektua garatzea.
- Lankide-taldeen osaera eta koordinazioari buruz erabakiak hartzea.
- Edukien garapenerako enkarguak, ikerketak eta lanak zuzentzea.
- Erakunde Arteko Batzordearen eta gizartearen aurrean Hautagaitzaren Bulegoa ordezkatzeko Partzuergoarekin batera.
- Proiektua garatzeko behar diren lotura artistiko eta kulturalak identifikatu eta dinamizatzea.

## 2.1 GERTAKIZUNAREN FINANTZAKETA. NOLA ANTOLATUKO DA AURREIKUSI DEN AURREKONTUA? ZEIN DA «EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA» URTEA ANTOLATZEKO AURREIKUSI DIREN BALIABIDEEN GUZTIZKO ZENBATEKOA? ZEIN DIRA FINANTZAKETA-ITURRIAK, ETA NOLAKO EKARPENA EGITEN DIO BAKOITZAK GUZTIZKO ZENBATEKOARI?

DSS2016EU-ren aurrekontua hiru eremu nagusitan banatzen da:

1. Programazioa: kultura-proiektu eta ekitaldien kostuak, eta horiekin zuzenean lotutako langileengatiko kostuak.
2. Komunikazioa: oihartzunaren kudeaketa-kostuak, publizitatea, prentsa, harreman publikoak eta baliabide elektronikoak.
3. Kudeaketa eta gastu orokorrak: proiektuaren kudeaketa eta koordinazio orokorretik etorritako gastu arruntak eta soldatengatikoak, tokiko eta nazioarteko harremanen kudeaketa barne.

Guztira 89.000.000 euro aurreikusi dira 11 urteko aldi baterako. Aurrekontu horretatik, 40 milioi euro adierazpenaren urterako izango dira.

DSS2016EU-rentzako aurrekontuak benetako konpromisoa erakusten du, eta koherentea da egungo krisi-egoerarekin. Datozen urteotan egoera horrek hobera egiten badu, guztizko aurrekontu-esleipena handitu egin liteke.

Aurrekontu horren kaudimena proiektua bultzatzen duten erakunde publikoen finantza-konpromisoan oinarritzen da. Izan ere, Donostiako Udalak, Gipuzkoako Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak guztizko zenbatekoaren %75 jarriko dute. 2016. urterako, Espainiako Gobernuaren eta Europako Batzordearen ekarpenak jasotzea espero dugu, Melina Mercouri sariagatik.

Sektore pribatuaren ekarpena, lankidetzeta-mota guztiak kontuan izanik, %20koa izango da urtero aldi osoan zehar. Gainerako %5a finantza-iturri osagarrietatik etorriko da, adibidez sarrerren salmentatik eta *merchandising*-etik.

Gaur egun, Kutxa Fundazioaren finantzaketa jasotzen dugu; Gipuzkoako finantza-erakunde garrantzitsuenaren gizarte-ekintzarena. Etorkizunean ere proiektua finantzatuko duela hitzeman du. Gure lurraldeko enpresa garrantzitsu batzuek ere beren ekarpena egiten dute; besteak beste Amenabar, Campezo, Euskaltel, FCC, Moyua, Murias, Obegisa eta Oronak.

Gainera, Donostia EKH izendatzen badute, honako erakunde eta enpresen finantza-laguntza jasoko dugu: Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera, Gureak Taldea, Ficoba Fundazioa, TTT Ejes, S.A., Industrias Mail, S.A., Construcciones Amenabar, S.A., Corporación Patricio Echeverría, S.A., Construcciones Galdiano, S.A., Industrias Químicas Irurena, S.A., Hine Group, Grupo TTT, Tratamientos Técnicos T.T.T., S.A., Lanik, I.S.A., Engranajes Juaristi, S.L., CTI Soft, S.L. JAZ-Zubiaurre, S.A., Ascensores Muguerza, S.A., Hotel Codina, S.A., EZARRI, S.A., TS Fundiciones, S.A., Fresmak, S.A., Reiner e Hijos, S.A., Ibermática Tecnología y Conocimiento, Lagun Artea Grupo Empresarial, S.L., IkanKronitek, S.L., Tratamientos Superficiales Iontech, S.A.

## 2.2 GERTAKIZUNAREN FINANTZAKETA. HIRIKO ERAKUNDEEK HARTU AL DUTE JADA FINANTZA- KONPROMISORIK, EDO EGIN AL DA AKORDIORIK BERAIEKIN?

Lehen esan dugunez, proiektuaren erakunde sustatzaileek hartu dituzte dagoeneko aldi osorako finantza-konpromisoak.

Lankidetzaz hitzarmenaren arabera, erakunde bakoitzak honako ekarpena egingo du:

Donostiako Udalak: %37,5  
 Gipuzkoako Foru Aldundiak: %25  
 Eusko Jaurlaritzak: %37,5

### 2.3 GERTAKIZUNAREN FINANTZAKETA. ZEIN DA ADIERAZPENAREN PROGRAMARENTZAT AURREIKUSITAKO GASTUEN GUZTIZKOA?

Proposamena ongi garatzeko, urtero batez beste gutxienez aurrekontuaren %60 hertsiki kultura-programaziora zuzentzea aurreikusi da.

### 2.4 GERTAKIZUNAREN FINANTZAKETA. ZEIN DA AZPIEGITURENTZAT (AZPIEGITURA KULTURAL ETA TURISTIKOENTZAT, ERABERRITZEAK BARNE) AURREIKUSITAKO GASTUEN GUZTIZKOA?

Azpiegiturentzat aurreikusitako gastuak lurraldearen egitura-gastuak dira. Beraz, ez dira sartzen EKHaren proiektuaren aurrekontu espezifikoan. Hona hemen azpiegitura garrantzitsuenak, proiektuaren edukiei dagokienez:

PROIEKTUA	AURREKONTUA	PROIEKTUA	AURREKONTUA
Aquarium-a handitzea. Hirugarren fasea.	48.000.000	Autobus-geltokia	30.463.098
Kursaal Kongresu Jauregia handitzea	10.000.000	Topoa-metroa	712.000.000
Basque Culinary Center	17.100.000	Abiadura handiko trenak	4.178.000.000
UPV-EHUko liburutegia	27.600.000		
Emakumearen Etxea	2.000.000	<b>Hiri-azpiegiturek GUZTIRA</b>	<b>4.920.463.098</b>
Uliako Natura Etxea	2.320.000		
Bakearen Etxea	5.890.504		
Talentuaren Etxea	12.700.000		
Intxaurrondoko Auzo Etxea	17.000.000		
Kirol Egokituaren Zentroa	9.000.000		
Oroimenaren Lorategia	2.633.000		
San Telmo Museoa	25.000.000		
Musikene	21.300.000		
Ametzagaina Parkea	9.300.000		
Ikus-entzunezkoen Berrikuntza Poloa	20.000.000		
Tabakalera	75.000.000		
Balenciaga	21.000.000		
Ondartxo	468.312		
Gordailu	16.000.000		
Mintzola	3.000.000		
Ekainberri	6.318.040		
<b>Kultura-azpiegiturek GUZTIRA</b>	<b>330.311.816</b>		

## 2.5 GERTAKIZUNAREN FINANTZAKETA. ZEIN PLAN AURREIKUSI DA PROIEKTUARENTZAKO BABESLEAK LORTZEKO? ZENBATERAINOKOA IZANGO DA BABESLEEN FINANTZA-PARTAIDETZA, ZUEN USTEZ?

**DSS2016EU**-ren Babes Planak hainbat laguntza-maila jasotzen ditu, ohikoenetik hasi (kapitala jartzen duen babeslea) eta gauzazko laguntzaileetara; proiektu edo jarduera zehatzei ekarpenak egingo dizkieten babesleak ere aurreikusten dira, mezenasgo-sistema mailarik txikienean ezartzeko ahalegin batean.

MAILA	AZALPENA	FORMULA EDO EGIAZTAGIRIA
Atxikimenduak	Web orrialdearen edo inprimakiaren bidez atxikitzen diren partikularrak, enpresak eta erakundeak	Atxikimendu-inprimakia
Enbaxadoreak	Hautagaizta maila pertsonalean «ordezka» dezaketen pertsonak	Lankidetzat-hitzarmena
Gizarte- <i>partnerrak</i>	Hautagaiztaren irudia zabaltzen eta erakusten laguntzen duten erakundeak	Lankidetzat-hitzarmena
Mikro-mezenasak	Artista, proiektu edo kultura-jarduera zehatzak babestuz laguntzen duten pertsona, erakunde edo enpresak	Dohaintza-ziurtagiria
Kultura- <i>partnerrak</i>	Jarduerak antolatzen laguntzen duten erakundeak	Lankidetzat-hitzarmena
Babesleak/laguntzaileak	Ekarpen bat (urteko 50.000€ eta 150.000€ artean) eskudirutan edo espezieetan egiten duten erakunde eta enpresak	Hitzarmena
Bazkideak	Diru-ekarpen handi bat (<150.000€) egiten duten eta Bazkideen Kontseiluan parte hartzen duten erakunde eta enpresak	Hitzarmena
Erakunde bultzatzaileak	Erakundeak	Esparru-akordioa

**DSS2016EU**-k bide berriak aztertuko ditu, tamaina honetako adierazpen bat ekonomia- eta finantza-euskarrietan ere eraldatu ahal izateko. Besteak beste, babesleei hobari fiskalak emateko eta partikularren ekarpenei kenkariak ezartzeko mekanismoak aktibatuko dira, Euskal Herriko zergapetzeko ahal berezia erabiliz\*. Gainera, mikrokredituak sortuko dira kultura-enpresa sortzaileentzat, eta artista eta enpresen artean lankidetzat eta berrikuntza irekia sustatzen duten proiektu nahiz plataformentzat.

Babes-plan horri esker, guztizko aurrekontuaren %20 lortzea espero dugu.

## 2.6 GERTAKIZUNAREN FINANTZAKETA. DONOSTIA EUROPAKO KULTUR HIRIBURU IZENDATZEN BADUTE, ZEIN EGUTEGIREN ARABERA GAUZATUKO DIRA GASTU HORIEK?

89 milioi euroak 5 etapatan gastatuko dira. Etapa bakoitzak ezaugarri eta finantza-ondorio bereziak izango ditu.

- Izendapenaren aurreko urteak (2009-2011)
- EKHaren inguruko urteak (2011-2015)
- Adierazpenaren urtea (2016)
- Adierazpenaren ondoko urteak (2017-2020)
- European finkatzea (2020 - )

	2009 - 2011		2012 - 2015		2016		2017 - 2020	
Kultura-programazioa	2.830.000	%58	13.890.000	%58	24.000.000	%60	14.000.000	%70
Komunikazioa	1.335.000	%27	6.595.000	%27	8.000.000	%20	3.000.000	%15
Kudeaketa eta gastu orokorrak	735.000	%15	3.615.000	%15	8.000.000	%20	3.000.000	%15
	4.900.000		24.100.000		40.000.000		20.000.000	
<b>Guztira</b>	<b>89.000.000</b>							

Ikus finantza-proposamen osoa [DSS2016EU](#) proiektuaren 223. orrian, «Intendentzia. Finantzaketa» atalean.

\* Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko zerga-harremanak Kontzertu Ekonomikoaren bidez arautzen dira; harreman horiek XIX. mendearen bigarren erdialdean dute beren jatorria, eta 1978. urtean Espainiako Konstituzioan berretsi ziren, euskal lurralde foralen errealitate historiko eta politikoa, alegia, eskubide historikoak, berariaz aitortzearen bidez. Honela, Lurralde Historikoek ahalmen arauemailea dute zergak arautzeko, eta zerga horiek kudeatu eta biltzeko autonomia ere bai.



# IV —

## HIRI-AZPIEGITURAK

### 1. ZEIN DA HIRIAREN EGOERA IRISGARRITASUNARI DAGOKIONEZ (ESKUALDEKO, ESTATUKO ETA NAZIOARTEKO GARRAIOBIDEAK)?

Donostia leku oso irisgarria da, kokapen estrategikoa baitu: Frantziako mugatik 20 km-ra dago, Europa eta Iberiar Penintsularen arteko igarobide naturala izan den korridore batean.

Hiriak bost aireportu ditu gertu (20 eta 60 minutu arteko distantziara Hondarribia, Biarritz, Bilbo, Gasteiz eta Iruña), eta beraz, aireko lotura onak ditu Espainiako eta nazioarteko aireportuekin. Aireportu horietan mota askotako tarifak aurki daitezke, ohikoetatik hasi eta merkeenetara. Gainera, gure hiriaren kokapen geografikoa dela eta, lurreko bide-sarea oso maiz erabiltzen dugu Europara joateko: bai trenez, Irun eta Hendaian Frantziako TGV linearekin bat eginez, bai ibilgailu pribatuz, eta bai autobus-linea erregularren bidez.

Aukera berezi gisa, Europara itsasontziz ere irits gaitzke, Bilbon porturatzen diren ferryen bidez, edo Gipuzkoako kostaldeko kirol-portuen sare zabalean portura daitezkeen ontzi pribatuen bidez. Europatik oinez ere irits daiteke Donostiara, Santiago Bideko Kostaldeko Ibilbidea eginez. Izan ere, Donostia erromesen pasagune garrantzitsua da, gero eta jende gehiagok erabiltzen duen Kostaldeko bide horretan.

Gipuzkoa eta Euskadiko autobide-sare trinkoak errepideko lotura onak bermatzen ditu, bai nazioarteko sareekin eta bai estatukoekin. Epe laburrera, gainera, lotura horiek hobeto egingo dira, hirirako sarbide berriak inauguratzen direnean.

Eskualde-mailako irisgarritasuna errepideetan eta trenbidean oinarritzen da. Donostia Gipuzkoako gainerako herrieekin lotzen duten garraio kolektiboko linea asko daude (trena eta autobusa). RENFE eta EuskoTrenen (euskal trenbide-sarea) aldiriko zerbitzuen eraginkortasuna nabarmendu behar da. Izan ere, lotura azkarrak ahalbidetzen dituzte Donostia eta Hautagaitzaren lurraldearen artean.

Toki-mailan, hiriak garraio iraunkorraren aldeko apustua egin du. Bere garraio publikoko sarea azpimarratzeko modukoa da, Europako erabilera-ratiorik handienetako bat duelako. Horrekin batera bidegorri-sarea nabarmendu behar da —Espainian lehena—, 50 km dituen eta hiriko hainbat leku lotzen dituen.

Donostia oinezkoen hiria da, batez ere. Kale eta espazio publiko asko oinezkoentzat prestatuta eta elkarrekin lotuta daude, eta beraz, hiria oinez zeharka daiteke. Horrek, gainera, ingurune atsegina bat bermatzen du, funtzionaltasun-aniztasuna duten pertsonentzat egokitua.

## 2. ZEIN DA HIRIAREN OSTATU-AHALMENA?

Gaur egun, Donostian 9.000 ohe baino gehiago daude aukera guztiak kontuan izanik: hotelak, aterpeak, ostatuak, kanpalekuak eta landetxeak; horrez gain 1.300 ostatu-plaza daude 13 unibertsitate-egoitza edo ikastetxe nagusitan, eta autokarabanentzat prestatutako leku bat ere aipatu behar da. Gainera, 2011n *Talent House* edo Talentuaren Etxea delakoa inauguratuko da. Ikertzaile eta artistentzako egoitza horrek 180 lagunentzako lekua izango du.

Donostiatik gehienez ordubetera, 24.617 hotel-ohe dauzkagu, beste 3.685 landetxeetan, eta 8.720 kanpaleku-plaza ere bai. Guztira 37.022 ostatu-plaza, beraz. Artistentzako Egoitza bat ere badugu Hendaian. Gainera, internet bidezko etxebizitza-trukea eta udarako etxebizitzaren alokairua goraka doaz.

Plaza horiei Bilbo (ordubetera) eta Biarritzen (30 minutura) hotel-eskaintza izugarria gehitu behar zaie.

Datozen urteotan, gainera, Donostiaren ostatu-ahalmena handitu egingo da. Izan ere, 12 hotel, kanpaleku bat eta hiru aterpe eraikiko dira.

### 3. ZEIN DIRA HEMENDIK 2016RA AURREIKUSI DIREN PROIEKTUAK HIRI- ETA TURISMO-AZPIEGITUREI DAGOKIENEZ, ERABERRITZEAK BARNE? ZEIN PROGRAMAZIO AURREIKUSI DA OBRAK EGITEKO?

#### Hiri-azpiegiturei dagokienez

##### → Trenbide-sarea

Lurraldeak apustu sendoa egin du trenbidearen alde, garraiobide iraunkorra den aldetik, eta proiektu garrantzitsuak egiten ari da hiru mailatan: Abiadura Handiko Trena, Eskualdeko Sarea eta Hiriarteko Metroa.

2016. urterako, Abiadura Handiko Trenaren sarea erabiltzeko moduan egongo da, lanak hasita baitaude dagoeneko. Abiadura Handiko Trenak hiru euskal hiriburuak lotuko ditu (Donostia, Bilbo eta Gasteiz) Espainia eta Europako nodo nagusiekin.

Eskualdeko trenbide-sarea ere birmoldatu eta modernizatu egingo da, eta horri esker, linea-kopurua handituko da eta desgaituentzako irisgarritasuna bermatuko da.

Hiriarteko Metroa eraikitzea ere aurreikusi dugu, Donostia bere metropoli-arearekin eta Eurohiriarekin lotzeko asmoz.

##### → Intermodalitatea

Aurreikusitako beste proiektu garrantzitsu bat Donostiako egungo tren-geltokia berritzea da, Abiadura Handiko Trena bertara irits dadin, eta garraio publikoko geltoki intermodal bat egiteko. Ildo horretatik, intermodalitatea osatzeko, autobus-geltoki berri bat eraikiko da lurpean (tren-geltokiaren azpian). Distantzia ertain eta luzeko autobusak iritsiko dira bertara, eta lurpeko aparkaleku bat ere egongo da. Garraio-azpiegitura intermodal hori Tabakaleraren ondoan kokatuko da; hau da, egun garapen-fasean dagoen Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroaren aldamenean. Garraio-azpiegituren arloko esku-hartze horrekin, mugikortasun-sistema adimendun eta iraunkor bat sortuko da. Autobus eta bizikletentzako erreiak jarriko dira,

eta erabilera publikoko bizikletak ere bai. Gainera, kaleak eta espazio publikoak oinezkoentzat prestatzeko politika bultzatuko da etengabe.

→ Bide-azpiegitura, errepideak

Datozen urteotan, Donostiarako sarbideak hobetzeko lanak amaitu egingo dira. Hiriaren Bigarren Ingurabidea, adibidez, duela gutxi inauguratu da. Urumeako autobidea eraikitzea ere dago aurreikusita, eta edukiera handiko errepideak izango ditu.

Turismo- eta kultura-azpiegiturei dagokienez

Egungo turismo- eta kultura-sareaz gain, [DSS2016EU](#)-k azpiegitura berriak izango ditu, elkarbizitzarako kulturaren alde egindako apustua frogatuko dutenak.

Dagoeneko hasi gara kultura-ekipamendu berriak garatzen eta eraikitzen, sormena, balio-hezkuntza eta partaidetza bultzatu, kultura-dinamikak gaztetu eta gizartea aldatzeko asmoz. Apustu garrantzitsua da gure hiriarentzat. Gure proiektuan 15 espazio berri aurreikusten dira, eta hauek dira aipagarrienak:

- Bakearen Etxea. Aieteko jauregian dago (XIX. mendekoa). Jauregia parke zoragarri baten erdian dago, eta Franco diktadorearen udako etxea izan zen. Birgaitze-lanak egin ondoren, eraikinak Giza Eskubideen Nazioarteko Institutua hartuko du. Bakearen balioei eta giza eskubideekiko errespetuari buruzko sustapen, hezkuntza eta sentsibilizazioan espezializatuko da. Bakearen Etxearen proiektuaren osagarri gisa Ipuinen Etxea sortuko da, hurrei zuzendua, eta baita Kultur Etxea ere, Aiete auzoko hurbiltasun-ekipamendua.
- Basque Culinary Center. Hiriko Teknologia-Parkearen inguruetan eraikiko da, I+G+b-ko enpresa nagusiak dauden tokian. Espainiako Gastronomia eta Elikagai Berrikuntzako lehen Fakultatea izango da, eta izen handiko euskal sukaldarien partaidetza izango du (Arzak, Aduriz, Subijana).
- Musikene. Euskal Herriko Goi Mailako Musika Zentroarentzat egoitza berri eta berezi bat sortzea da helburua. Eskola hori oso garrantzitsua da estatu-mailan, eta bere bulegoak hirian zehar sakabanatuta ditu gaur egun.

- Intxaurrendoko Hiritar-Zentroa. Kultura eta kirola uztartuko dituen hurbiltasun-ekipamendu bat izango da. Hiri-kulturari emango zaio lehentasuna, gazte gehien dituen Donostiako auzoetako bat izanik.
- Kirol Egokituaren Zentroa. Proiektu berritzaile eta aitzindari honen helburua hauxe da: hainbat kiroletarako eta asistentziarako leku bat sortzea (gimnasioak, igerilekua, spa, mediku-kontsultategiak, fisioterapia-unitateak) mugikortasun-disfuntzioak dituzten pertsonentzat. Ingurune pribilegiatu batean egongo da: Kontxako hondartzan. Kirol Egokituaren Zentroa hondartzaren mailan kokatuko da, Kontxa Pasealekuaren azpian.
- Ikus-entzunezkoen Berrikuntza Poloa. Donostiako Udalak ikus-entzunezkoen eta sormenaren industriaren alde egindako apustuaren adibidea da. Udal-ekipamendu berri honek ikus-entzunezkoen sektoreko 60 enpresa inguru hartuko ditu. Enpresa horiek leku komun batzuk partekatuko dituzte (platoak, ikuskaldi-gelak, bideotekak eta haurtzaindegia), eta kalitate handiko produktu audiobisualak eta artistikoak sortzeko sinergiak ere bai.

Eraberritze-lanei dagokienez:

- San Telmo Museoa. Alde Zaharraren erdian kokatua, hiriko eraikin zaharrenetako bat da (XVI. mendekoa). Domingotarren komentua izan zen antzina, eta Independentzia Gerran, berriz, kuarter eta ospitale militarra. Proiektuak Museoa birgaitzea eta handitzea aurreikusten du. Horrela, Euskal Herriarren Museo berritzaile bat sortuko da, iragana gogora ekarriko diguna eta, orainetik, etorkizuneko erronkak erakutsiko dizkiguna.
- Tabakalera. Tabako-fabrika zahar hau Ikus-entzunezkoen Kulturaren Fabrika bihurtuko da; Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa izango da, Euskal Herrian ikus-entzunezkoen arloko berrikuntza eta sormena bultzatzera zuzendua. Beste kultura-erakunde batzuen artean, Euskal Filmotekaren egoitza hartuko du.

Azpiegitura guztien lanak abian daude, bakoitza bere egikaritzamailarekin. Proiektu horietan parte hartzen duten tokiko, eskualdeko, estatuko eta Europako erakundeek dagoeneko agindu dituzte lanak gauzatzeko beharko diren finantza-baliabideak. EKHaren programari esker, azpiegitura horien proiektu, jarduera eta dinamikak Europako hainbat *partner*ekin lankidetzan eta kogestioan landuko dira, eta inplikazio handiagoa izango dute Europako sareetan.

# V — KOMUNIKAZIO- ESTRATEGIA

## 1. EUROPAKO KULTUR HIRIBURUTZARI DAGOKIONEAN, ZEIN DA HIRIAK BURUTUKO DUEN KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIA?

**DSS2016EU** Hautagaitzaren komunikazioak *Komunikatu=Partekatu* ideari heltzen dio. Gure komunikazioaren erronkarik handiena 2016. urterainoko bidea elkarrekin egitea da, Europako Kultur Hiriburua ahalik eta **PERTSONA** gehienekin ospatzeko. Horretarako, komunikazioa proiektu guztietan uztartu nahi izan dugu hasieratik bertatik, sorrera beretik. **DSS2016EU** Hautagaitzan ez dago ez proiekturik ez komunikaziorik, *komunikatzen duten proiektuak, partekatzen diren proiektuak* baizik.

Ez da, beraz, estrategia tradizionala edo bertikala, erakusteko helburu bakarrez eremuak erosten dituenena. Ez dugu pertsonen bizitzan oztopo izan nahi, haiek lagundu egin nahi ditugu.

Eta lagun izateko, bi ildo estrategiko hauek landuko ditugu:


- Substantiboa, gure aditz nagusiak ardatz dituzten kultur proiektuak diseinatuz, gure publikoen interesari lotuak.
- Erlaziozkoa edo erresonantziatzkoa, baina ez **DSS2016EU** Hautagaitzak berak komunikazioa *egiteko*, baizik eta beste batzuen ahotsak entzun daitezen *laguntzeko*.

Estrategia hori ez da gastu bezala deskodifikatzen, inbertsio bezala baizik. Ekintza komunikatiboa lantzeko modu bat izango da, sinesgarritasunean, koherentzian eta iraunkortasunean areagotzeko.

Giza faktorea biziki landuz, barrutik kanpora doan antolaketan oinarritzen da (*inside-out movement*), izan ere, giltza-eragileak zehazten ditu, eta jardunean ari direla berrasmatu beharko diren mezuak eta baliabideak emango dizkie, hemendik bost urtetara gaurko baliabideak gaindituz. Gure lantaldeak ez du sormena publizitate-mezuetan galduko, baizik eta komunikazioaren hartu-emanerako baliabideak sortu eta diseinatuko ditu. *Resonance coach team* moduko bat izango da.

Erresonantzia Talde hori hazten den neurriaren arabera jakingo dugu bide zuzenetik goazela, horrek gure sarea ere hazten ari dela esan nahiko baitu. Kudeatuko ditugun giltza-erresonantziazkoen kopuruaren arabera izango da gure arrakasta.

Gure erresonantzia-estrategia hori 2016ko EKH izendatua izango den Poloniako hiriarekin partekatu nahi dugu, baina badakigu, hala ere, estrategia hori baliabidez eta lan sistemaz osatu behar dugula, elkarren artean lan egiteko aukera emango digutenak —adibidez, dss2016.eu plataforma digitala, programazioa lekuz mugitzeko birtransmisio digitalen sistema, edo *KomunikaLAB*—, baita komunikazioaren aldetik bereziak diren proiektuetan aritzeko ere —adibidez, *Haziak DSS2016* hazitegi ibiltaria, *Denon Atlantikoaren Itsasontzia*, *Europar elkarriketan* jolas digitala edo telebistako saio baten sorkuntza Europako programatzaile hoberenetako baten eskutik—.



## 2. AURREKONTU HORRETATIK ZENBAT IZANGO DA KOMUNIKAZIORAKO?

Guk ez dugu proiekturik komunikatuko; komunikatzen duten proiektuak jarriko ditugu abian.

Horregatik, komunikazioan egindako inbertsioaren kurba kultura-proiektuetan egindakoaren parean mantenduko da, gertakizunaren aurreko urtean izan ezik (2015). Izan ere, urte horretan gure ahalegina handitu beharko dugu (%30). 2016an, aurrekontu orokorraren %25 komunikaziora zuzentzea aurreikusi da. Hurrengo urteetan %20-15era jaitsiko litzateke.

Ikuspegi orokor batetik, eta gure oihartzun-estrategiatik abiatuz, komunikaziora zuzendutako baliabideak mobilizatzeko ez ditugu soilik EKHarren proiektuaren zuzeneko aurrekontuak erabiliko; oihartzunean parte hartzen duten eragileen laguntzari esker, baliabide gehiago lortuko ditugu.

## 3. HIRIAK IZENDAPENA LORTZEN BADU, NOLA BULTZATUKO DU MELINA MERCOURIREN OHOREZKO SARI BANAKETAREN EKITALDIA?

EKH izendapena lortzen badugu, Melina Mercouri saria gure proiektu berezietako bati eskainiko diogu: ardatz diren gure hiru aditzei lotutako hiru pelikulen produkzioari, hain zuzen. Gure ondare europarraren nazioarteko erreferente bihurtu nahi ditugu hiru pelikula horiek. Filmagintzaren bidezko lekukotza bat izango da, gizartea eraldatzen eta elkarbizitza sustatzen lagunduko duena, eragin soziala nabarmenagoa izango duten adierazpen artistikoen bitartez.

Saria gure ekimen internazionalena denaren babespean aurkeztuko da, Donostiako Nazioarteko Zinemaldian alegia, horrela emango baitiogu merezi duen itzala eta zabalkundea.

**DSS2016EU** Hautagaitzak mercouri.es, mercouri.com eta mercouri.org domeinuak erosi ditu, EKH orain arte izan diren hiriekin eta izango direnekin web plataforma bat elkarrekin kudeatzeko asmoz, gure kide poloniarrekin bereziki.



# VI — GERTAKIZUNAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

## ESAN HIRIAK SISTEMA BEREZIRIK EZARRIKO DUEN HONAKO ALDERDIEN KONTROLA ETA EBALUAZIOA EGITEKO.

**DSS2016EU** proiektuan, ebaluazioa ez da garrantzi gehiago ala gutxiago duen une zehatz bat; hasiera-hasieratik hor dagoen prozesu bat da, eta proiektuari bere garapen osoan laguntzen dio.

Arriskatuz eta gauzak probatuz, saio eta hutsegiteen bidez ikasiz, pixkanaka ebaluazio-sistema eta bere erreminta-kaxa eraikitzen joan gaitzke noranzko egokian.

**DSS2016EU**-k bultzatuko duen kontrol-sistema ebaluaziorako zenbait tresna eta estrategia metodologikoez osatuko da. Ebaluazioa kuantitatiboa, kualitatiboa eta partaidetzazkoa izango da. Eragileen ezagutza, jarduera eta partaidetzatik lortutako informazioa sistematizatzean oinarritutako esparru kontzeptual eta operatibo batetik abiatuz, gauzak ikasteko eta norabideak zuzentzeko prozesu bat abiaraziko dugu, eta horrela gure helburuak lortu ahal izango ditugu.

Eredua **DSS2016EU** Bulegoak eta ebaluazio ekonomikoan, kudeaketan eta jarduera nahiz zerbitzu publikoetan adituak diren Euskal Herriko Unibertsitateko doktoreek osaturiko talde batek diseinatu du. Aipatu eragileez eta nazioarteko adituez osaturiko Ebaluazio Batzordeak ezarriko du eredu hori. Batzordeak ikerketa-proiektu bat bultzatuko du, kulturak indarkeria gainditzeko tresna gisa

duen eraginari buruz. Besteak beste, UNeCC Unibertsitate Sarearen bidez egingo du hori (University Network of the European Capitals of Culture).

Ebaluazio-sistemarentzat tresna berezi batzuk ezarriko dira, **TRANS**formometroak delakoak. Herritarrak subjektu aktibo eta nagusizat hartzen dituzten ebaluazio-tresnak dira. Hona hemen adibide batzuk: *TRANSquestion*, *Kids are the way*, *ASOMO*, *BAIalaEZ*, *Emozionometroa*, *Eszenatokiko eztabaidak* eta *SOCRATES Café*.

Finantza-kudeaketaren kontrola eta ebaluazioa egiteko sistema 2011n abiaraziko da, eta hiru lagunez osaturiko talde batek zuzenduko du (Donostiako Udaleko Kontu-hartzaileak, Merkataritza Ganberako Zuzendariak eta EHUko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako Zuzendariak). Geroago, **DSS2016EU** proiektuari atxikitako udaletako kontu-hartzaileak sartuko dira talde horretan.

EKH izendatzen bagaituzte, 2012an, finantzen arloko aditu-taldeak 2008-2012 aldian EKH izan diren bost hiriak bisitatuko ditu. Horren helburua esperientziak ezagutu eta alderatzea da, eta Europako Kultur Hiriburuetako Finantza Adituen Europako Sarea sortzeko aukerak aztertzea.

Finantza-Ebaluazio eta Kontrolerako Batzordeen osagarri gisa, Ondare Soziokulturala Kudeatzeko Batzordea dago. Bere helburua **DSS2016EU**-k lehen existitzen ez ziren dinamikak sortzen dituela ziurtatzea da, eta lurraldeko erabilerak eta ohiturak aldatzen benetan laguntzen duela bermatzea.

ALDAKETA ESTRATEGIKOAK	STATUS QUO-A	ERAGINA	ADIERAZLEAK
INDARKERIAREN ETA BELDURRAREN AURREAN DESBERDINA DENAREKIN BATERA BIZITZEKO GIZARTE-PREMIA	Hiritargo +	Manifestaldiaren aurreko urteetan	Sarbidea eta kultur partaidetza
ISILTASUNAREN ETA EZJAKINTASUNAREN AURREAN HIZKUNTZA DESBERDINETAN KOMUNIKATZEKO PREMIA	Kultur eztabaida European, Espainian eta Hautagaitzaren lurraldean	Kultur Hiriburu izateko urtean (2016)	Gizarte-giroaren aldaketa eta bizikidetzatza
HORMEN ETA AURREIRITZIEN AURREAN MUGARIK GABEKO EUROHIRI BAT IZATEKO PREMIA	Europa +	Ondarean	Ekonomia eta turismoa
		Ikaskuntza prozesu gisa Hautagaitzaren hiri eta lurraldean	Irudia eta oihartzuna
		Laborategi gisa European	Gobernantza

# VII — OSAGARRIAK

## 1. ZUEN IRITZIZ, ZEINTZUK DIRA HIRIAK EUROPAKO KULTUR HIRIBURU IZATEKO DITUEN INDARGUNEAK? ETA ZEINTZUK AHULGUNEAK?

Ikuspuntu baikor batetik, gure proiektuaren arrakastaren mesedetan arituko diren honako faktore hauek azpimarratuko genituzke:

- Hiria eta lurraldea. Donostia eta bere lurraldea izugarri xarmangarria den ingurune natural eta hiritar baten jabe dira. Tradizioa eta modernitatea uztartzen dira baliabide ugari, nazioarteko ospea duten kultur ekitaldiak eta formula herrikoiak eta sona internazionala duen sukaldaritza (16 Michelin izar) biltzen dituen hiri honetan. Gure abegikortasunarekin eta antolakuntzarako urtetako ahalmenarekin batera, gure gizarte zibilaren ekintzarako gogo nabarmentzen dugu ekonomiaren garapenerako euskarri gisara.
- Adostasuna eta babes. EKH izateko proiektuak behar heineko adostasun eta babes politiko eta soziala jaso du, horrelako garrantzia duen ekimen bati aurre egiteko eta geroan ere jarraipena emateko. Erakundeetako babes-maila guztien bultzadaz ari da, eta alderdi politiko guztien eta esparru ekonomikoko, sozialeko eta kulturaleko eragile anitzen bermea dauka. Eta garrantzitsuagoa den zerbait: herritarren kidetasuna jaso du, denok gaudelako Europako Kultur Hiriburu izateak lurralde osoari modu baikorrean eragingo dion esperantzan.

- Iraunkortasun kulturala eta soziala. Gure proposamenak ez ditu *ad hoc* erako inbertsioak planifikatuko agerraldiaren urterako. Alderantziz, daukagunaz eta garenaz baliatuta, gure baliabideek, ekipamenduek eta ekimenek duten erabilera eta eragina ezagututa, egiten duguna birplanteatzeko aukera ezin hobea da proiektua, erabilerak berrasmatzeko, dinamika soziokulturalak birmoldatzeko, eta aurreikusitako baliabide guztiak globala den eremu horretan uztartzeko. Beraz, kulturaren eta gizartearen ikuspuntutik iraunkorra izan behar duen garapena sustatu nahi dugu, ez bakarrik *hard* izeneko hori zuzen kudeatuz, baizik eta gure arreta *soft* izeneko horren gainean jarriz, esparru lokalean eta esparru internazionalean garrantzia emango duten lan dinamika berriak sustatuz.
- Programazio koherentea eta erakargarria. Programazioaren egiturak eta proposamenak arrakastarako bidean jarriko duten hainbat osagai dituzte. Lehenik, talde lanaren emaitza, eta ez bakarrik artisten, sortzaileen eta kultur eragileen partaidetzaren eskutik, herritarren kezka eta gogoetatik ere jaiotakoak baitira, eta kultur eragileen eta aukeratu diren gaiak landu dituzten ordezkari eta pertsonen arteko hartu-eman sortzailearen ondorio. Interes artistikoa eta interes soziala biak uztartu dira, borondate eta kidesasun ugari hartzen dituen proiektu baten alde. Bigarrenik, programazioa izaera soziala duten helburuei begira eratu denez, erakargarritasun handia ematen dio gaur egungo Europan, gure ilusio eta erronkak eta Europako herritarren ilusio eta erronkak antzekoak baitira.
- Biztanleriarenganako elkarbide benetakoa. Programak jendearen gehiengoa hartu nahi du kontuan, baina gutxiengoaren interesa eta arreta piztuz. Gaur egungo Europako biztanleria ez da homogenea, eta ez ditu interes hegemonikoak. Biztanleriak formula ugari garatzen ditu, gero eta anitzagoak eta pertsonalizatuagoak diren ereduak. Gure garaiari adi, proiektuak izaera zehatza duten proposamenak hartzen ditu oinarri, biztanleria segmentu zehatzentzako interesgarriak, prozesuaren bidean elkarrekin arituko baitira eta elkarrekin ospatuko baitute Europako Kultur Hiriburua izango garen urtea.
- Indar pedagogikoa. Gure proiektua ez da erantzun guztien jabe. Gure proiektuak galderak zalantzan jarri nahi ditu, erronkak planteatu, erantzunak bilatu eta bultzatu. Hortaz, **DSS2016EU** Hautagaitzaren egituratze, tresnagintza eta kudeaketa prozesuak berez du maila sozial, instituzional eta politiko guztietan eragiten duen indar pedagogikoa. Ñabardurak txertatzeko aukera ematen

digu, pentsaera irekitzeko aukera, proiektuaren garapenean elkarren arteko lan modu berri bati leku egiteko aukera. Bide zuzenari eta merezi duen oihartzunari jarraitzeko aldaketa eta formula beharrezkoak.

- Borondate zintzoa. Giltzetako bat herritarrek eta lurraldeak erakusten duten zabaltzeko borondatearen zintzotasunean dago, europar dimentsio sare handi horretan beren partaidetza bermatzeko gogo benetakoa, hain zuzen.
- Fidagarritasun eta ekimen profesionala. **DSS2016EU** proiektuaren barruan arloan arloko esperientzia handiko profesionalak ari dira, baina, batez ere, beren konpromisoa lanbidetik harantz eraikitzen duten pertsonak, eragozpenak onartzen eta partekatzen dituztelako, baita Europako Kultur Hiriburu izateak dakarren gailentasun soziala ospatu nahi dutelako ere. Lantalde hori fidagarritasunaz eta ekimenaz ari da proiektua guztiona izan dadin lanean, hortik etorriko baita Europa mailako arrakasta soziokulturala, ekonomikoa eta instituzionala.
- Slow innovation prozesua. Halako prozesu batek guk nahi dugun eragina izan dezan, behar-beharrezkoa da *slow innovation* moduko eredu bati jarraitzea. EKH izatearen arrakasta ezin da gainazaleko eragina besterik ez duten ekitaldiak antolatzeko gaitasunaren arabera neurtu, baizik eta neurtu behar da sakoneko eraldaketa baten bitartez benetako ondarea uztera datorren prozesuarekin zentzuzkoak izanez. Premisa horren gainean eraikitzen da **DSS2016EU**.

Gure ahulgunei dagokionean, ondo dakigu honako hau:

- Hau bezalako proiektu baten konplexutasuna, eremu soziokulturalean sustatu nahi dugun norabidea baino haratago, partaidetzari eta elkarlanari estu eta berehala lotutako prozesuen estrategiak eta erritmoak kontuan hartuta kudeatu behar dela. Eta kudeatuko beharko ditugu ere oso gureak diren baldintzak, hala nola, nolabaiteko joera immobilista, harrokeriaren zitalkeria, erakundeen eta lurraldearen arteko batuketa benetako bat lortzeko zailtasuna edota nazioarte mailan beti-beti indarkeri terroristarekin lotzen gaituzten irudi estereotipatuak.
- Gai nagusienetako batzuetan sakontzeko beharra dagoela, gure helburu guztiak beteko dituen programa egiazko bat modu erakargarrian osatzeko.
- Sendotasun nahikoa duen kultur eragileez osatutako talde kritiko handi baten gabeziak gaudela, gure lurraldean kudeatzeko eta eraldatzeko gaitasuna izango duena. Ondorioz, lehengo saio hauetan bereziki indartu beharra daukagu oinarria, automesederako nolabaiteko talde gogoa baztertuz.
- Europa mailako kultur sare garrantzitsuenetan gaur egun dugun partaidetza urria dela.
- Gure helburuak eta gaitasunak argi dauzkagu, baina kulturaren erabilera instrumentala saihestuko duen estrategia bat definitzen ez dugula asmatu oraindik.
- Aukeratu dugun bidea erraza ez dela, nazioarteko izaeraz sortzen diren kultur ekimenen ohikotasunetik urrun ari baikara eta horrek nolabaiteko harridura eta ulertu ezintasuna sortu dezake.

Hala eta guztiz ere, proiektuak berezkoak ditu idealismoaren eta utopiaren aztarnak, eta ezinezkoa da hortik sortuko diren energia, ilusioa eta konpromisoa modu konbentzionalean bultzatzea. Proiektuaren garapenak berak planteatzen duenarekin zintzo jokatzeko badu, ziur gaude aldaketak ekarriko dituela eta kidesunak piztuko dituela eta dinamika berriak sortuko dituela. Maiztasunez helmuga ez diren helmuga haietara iritsiko da, ez bairik gabe.

## 2. EUROPAKO KULTUR HIRIBURU IZENDAPENA JASO EDO EZ, BA AL DU HIRIAK DATOZEN URTETARAKO KULTUR PROIEKTUAK GARATZEKO ASMORIK?

Europako Kultur Hiriburu izatea lortzen ez badugu ere, gure proiektua etorkizunaren aldeko apustua da, hiriak eta lurraldeak gaur egiten duten apustua, kulturak duen eragin eraldatzailearen eta elkarbizitzaren alde. Horregatik, gure proiektuak ez dira egoeraren araberakoak, eta hainbat erakundek eta eragile sozialek 2020. urtera arte bultzatuko duten plan estrategikoen, helburuen eta lan-ildo orokorraren barnean sartu behar da.

Europako Kultur Hiriburu izatea lortzen badugu, gure proiektua taldeko ilusioak hartuta garatu ahal izango da, eta helmugara bidean eramango ditu ezinbesteko abiadurak, dinamikak eta babesak, Europan elkarbizitzaren alde egin nahi baitugu.

Izendapenik ez lortzeak ez du lana egiteari utzi behar diogunik esan nahiko, baina ezingo dugu Europari begira amesten dugun gure bidea behar bezala zabaldu, eta ezta nola europar dimentsioa duen ekitaldi batek indarkeria mota guztien kontrako konpromiso soziala eta hiritarren jarrera indartu dezakeela bizi ere.

## 3. ONDOREN, AIPATU HAUTAGAITZARI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIAK.


DSS2016EU-n eraiki nahi dugun hiria eta bizitoki nahi dugun mundua, izan nahi dugun pertsona motarekin eta defendatuko ditugun baloreekin oso lotuta daudela uste dugu.











WWW.SANSEBASTIAN2016.EU



SAN SEBASTIAN  
DONOSTIA 2016

11



Basque Government  
Department of San Sebastian



Organismo Para Acreditación  
Española del Comité Olímpico



OLIMPIOS 2016